




Medio Ambiente, un compromiso con generaciones futuras



Ingurumena, datozen belaunaldiekiko konpromisoa

INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA 2014

*Ingurumen Sailburuordetza
2014ko ekaina*

1.	SARRERA	3
2.	2011-2018 ALDIRAKO INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PLANA BERRIKUSTEA 4	
3.	2014KO PROGRAMAREN HELBURUAK.....	5
3.1.-	2014KO HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA PROIEKTUAK.	7
3.2.-	2014KO IKUSKAPEN-PROIEKTUAK: BERARIAZKO HELBURUAK ETA HELMUGAK.....	8
3.2.1.	1. HELBURUA: IPPC JARDUERETARAKO ARAUDIA JARRAITASUNEZ BETETZEA.....	8
3.2.1.1.	2014/01 proiektua - IPPC jardueren segimenduaren ikuskapena	9
3.2.2.	4. HELBURUA: HONDAKINEN ARAUDIA BETETZEA.....	10
3.2.2.1.	2014/02 proiektua – Aurreko urteetako TEEH eta EEH proiektuen segimendua.....	11
3.2.2.2.	2014/03 proiektua - Zabortegetan hondakinak onartzea kontrolatzea eta kudeatzea, eta materialak kontrolatzea baimendutako betelanean	11
3.2.2.3.	2014/04 proiektua - Jarduera bertan behera utzi osteko hondakinak eta materialen kudeaketa.....	11
3.2.2.3.	2014/05 proiektua - Zepa siderurgikoen eta metalurgikoen kudeaketa.....	12
3.2.3.	5. HELBURUA: INGURUMEN-ARAZOEI SOLUZIOAK EMATEN EDO KONTROLATZEN LAGUNTZEA	12
3.2.3.1.	2014/06 proiektua - Donostialdeko usainak.....	12
3.2.3.2.	2014/07 proiektua – Pasaiako badia berroneratzea	12
3.2.3.3.	2014/08 proiektua – Barbadun Beherea.....	13
3.2.3.4.	2014/09 proiektua –Urola Garaia. Zumarraga	13
3.2.4.	7. HELBURUA: INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN GERTAERA ETA ISTRIPUEI BURUZKO ABISUAK, KEXAK ETA SALAKETAK KUDEATZEA	14
3.2.4.1.	2014/10 proiektua –Abisuen eta larrialdien kudeaketa.....	14
3.2.5.	8. HELBURUA: GAI KIMIKOEN ETA NAHASKETEN ARAUDIA (REACH ETA CLP) BETETZEA, INGURUMENERAKO ARRISKU HANDIEN KASUETAN	14
3.2.5.1.	2013/11 proiektua - REACH	14
3.2.6.	9. HELBURUA: IKUSKAPEN-AHALMENA HANDITZEA.....	15
3.2.7.	10. HELBURUA: IKUSKAPENAK EUROPAKO TESTUINGURUAREN ARABERA EGITEA.....	15
4.	GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.	15
5.	INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	16
6.	KONTROL PLANA.....	16
7.	INGURUMEN ARAUDIA ETA DIZIPLINA.....	16
8.	INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.	16
9.	ERANSKINAK.	18
9.1.-	PROGRAMATUTAKO IPPC JARDUERAK IKUSKATZEKO PROZEDURA.	18
9.2.-	PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENETARAKO PROZEDURA	22
9.3.-	IRAM (INTEGRATED RISK ASSESSMENT METHOD) METODOAREN BIDEZ INGURUMEN ARRISKUEN EBALUAZIO SISTEMATIKOA EGITEKO PROZEDURA OROKORRA	26
9.4.-	IPPC JARDUEREN ZERRENTA	75

1. SARRERA

2014ko Programa hau **Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2011-2018 aldirako Planaren** barruan kokatuta dago. Plan horretan, minimizatu egiten da Ikuskapen Zerbitzuak baimentze-prozedurei lotutako ikuskapenetan duen parte-hartzea, eta batez ere ingurumen-ikuskapenetara zuzentzen da haren jarduera, berariazko administrazio-ahalaz baliatuz.

Urteko programak zehazteko orduan, Ikuskapen Planean finkatutako **helburu estrategikoak** eta lehentasunak hartzen dira oinarritzat. Helburu horietatik, ikuskapen **programa honekin lotura** dutenak adierazten dira ondorengo taulan.

IKUSKAPENAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	Erreferentzia
- <i>IPPC jarduerak</i>	1
- <i>Hondakinen kudeaketa</i>	4
- <i>Ingurumen-arazoak</i>	5
- <i>Ingurumen-intereseko eremuen babesak</i>	6
- <i>Abisuen kudeaketa</i>	7
- <i>REACH</i>	8
- <i>Ikuskapen-ahalmena handitzea</i>	9

2014ko Ikuskapen Programa honetan, helburu estrategikoetako batzuetan garatzeko planifikatutako proiektuak zehaztuko ditugu, eta proiektu bakoitzeko helburu eta jomuga zehatzak ezarriko. Era berean, laneko plangintza zehatza (bisitatuko diren enpresak, ikuskatzaile bakoitzaren zereginak, datak, etab.) proiektu bakoitzaren dokumentuan xehatuko badugu ere, programa honetan markatzen dira adierazleen ildo nagusiak eta proiektu bakoitzean egin beharko den segimendua.

2013an, **berrikusi** egin dugu **Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren** estrategia; hain zuzen ere, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren ildo politikoa berrietara, egoera sozioekonomiko berrira, araudiko aldaketetara, sare sozioekonomikoaren ekarpenetara eta aurreko urteetako ikuskapenen esperientziara egokitzearen.

Zuzenean edo zeharka ikuskapenarekin erlazioa duten beste funtzio batzuk ere betetzen ditu Ikuskapen Zerbitzuak; eginkizun horien artean, ondorengo hauek nabarmentzen dira:

- a) SOS DEIAK zerbitzuaren bitartez jasotako abisuen eta beste administrazio, erakunde edo partikularren aldetik heldutako kexak jaso eta kudeatzea.
- b) REACH-CLP araudia aplikatzea, Ingurumen Sailburuordetzari dagozkion obligazioen eta eskumenen esparruan.
- c) Ingurumen Erantzukizunaren Legea aplikatzea.
- d) Urriaren 16ko 212/2012 Dekretuak arautzen duen Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa kudeatzea.

2. 2011-2018 ALDIRAKO INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PLANA BERRIKUSTEA

Azken hilabeteotan, hainbat aldaketa izan dira hala arlo sozioekonomikoan nola Sailburuordetzako Zuzendaritzaren gidalerroetan; beharrezkoa zen, hortaz, indarrean dagoen Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren estrategia errotik berrikustea. Berrikuspena hurrengo urtean zehar egingo da, eta aldaketak partzialki joango dira ezartzen. **Berrikuspeneko printzipio edo oinarriak** honako hauek dira:

1. **Jarduerak ingurumenera eta herritarrengana zuzentzea.** Planaren eta programa guztien ardatzak ingurumena babestea izan behar du, eta, ondorioz, pertsonen osasuna eta ongizatea babestea, ondoren adierazitako sinplifikazio eta aldaketei muzin egin gabe.
2. **Planaren irismena aldatzen joatea.** Planaren zeregin nagusia, gaur egun, jarduera industrialen eremuan Ingurumen Sailburuordetzaren eskumeneko ingurumen-alderdiak ikuskatzea eta kontrolatzea da. Aldaketa honako hau litzateke: lehen fasean, pixkanaka, Ingurumen Sailburuordetzaren eremu guztietako (ingurune naturala, lurzoruak, etab.) ikuskapen-eginkizunak Planean integratuz joatea. Bigarren fasean, beste administrazio batzuekin harremanetan jartzea litzateke egokiena, administrazio guztiak Euskadirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plan bakar batean koordinatzeko eta integratzeko aukerak zein diren ikusteko.
3. **A priori kontrolaren eredutik a posteriori kontrol eredura aldatzea.** Administrazioaren esku-hartze eredu edo paradigma pixkanaka aldatuz joatea, alde zuzeneko kontrolaren eredutik ondorengo kontrolaren eredura. Orain arte, administrazioaren fiskalizazioa baimen eta lizentzien fasean gauzatu da, batez ere. Ereduren aldaketarekin, bi kontrolak orekatuz joatea da xedea, alde zuzeneko faseko baliabideak optimizatu eta ondorengo kontrola bermatu ahal izateko. Horren guztiaren helburua ingurumen-babesaren maila egokia bermatzea da; horrekin batera, gainera, sinplifikazio administratiborantz joko da. Sinplifikazio horri esker, murriztu egingo da administrazioaren kontrolak sare sozioekonomikoan duen inpaktua, eta, era berean, administrazioaren baliabideak optimizatu egingo dira.
4. **Ikuskapenerako eta kontrolerako administrazio-prozedurak sinplifikatzea.** Ikuskapen-arloko zerbitzuen eta prozeduren azterketa funtzionala egingo da, haiek sinplifikatzeko. Zerbitzuak eta prozedurak, gaur egun, administrazio elektronikora gehitzen ari dira, pixkanaka.
5. **Ikuskapen Zerbitzuaren barruan, berrikuntza-gune bat sortzea.** Ikuskapena arriskuaren arabera programatu eta egikaritu behar da, Europako azken zuzentzaruetan jasotzen den bezala, eta tratamendu bereizgarri bat aurreikusi behar du arriskuaren eta sare sozioekonomikoaren ezaugarrien arabera, indarrean dagoen legea zorrotz errespetatuz. Zentzu horretan, honako hauek aurreikusi behar ditu berrikuntzak:
 - Unitate hau ingurumen-informazioa eraginkortasunez kudeatzeaz arduratuko da, ikuskapena bete-betean zuzen dadin emaitzetara eta erregularizatu gabe dauden arriskuzko jardueren kontrolera.

- Hainbat tresna, ikuskapena informazioan oinarrituta gauzatzeko, eta kudeaketa ingurumen-kalteak izateko arriskua murriztera bideratzeko, era berean ingurumen-lehia bidegabea ekiditen dela. Horregatik, berrikuntza-gune horrek informazioa tratatzeko eta ikerketarako zenbait funtzio aurreikusi behar ditu, ikuskapenak eraginkortasunez zuzentzeko.
- Hainbat formula landu behar dira jarduerak ingurumen-araudia betetzearen autokontrola beren gain hartzeko egindako ahaleginak aitortzeko eta sustatzeko. Gisa horretako formulen adibide da EMAS sistemen egitekoa aitortzen duen Industriako Igorpenen Zuzentaraua.
- Gune horrek arazoak garaiz identifikatzen lagundu behar du, gehiago zabaldu baino lehen lehenbailehen ekiteko eta haiei soluzioa ematen laguntzeko.

6. Informazioaren gardentasuna bermatzea eta informazioa berrerabiltzea. Ikuskapen Zerbitzuaren prozedurak eta informazioa kudeatzeko ereduak Europako politika berrietan sustatzen ari diren informazioaren gardentasun eta berrerabilpen ildoetara egokituko da. Horretarako, programak eta ikuskapenen emaitzak jendartera zabaltzeko mekanismoak garatuko ditu Jaurlaritzako talde berriak.

3. 2014ko PROGRAMAREN HELBURUAK

2014ko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programa ondorengo ardatz nagusiotan oinarritzen da:

- a) **IPPC jardueren segimendua ikuskatzea.** 2014an, Industriako Igorpenen Zuzentzarauan ezarritako eta, geroztik, IPPC Legearen aldaketan eta berorren Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuan lekualdatutako ikuskapenei buruzko baldintzak ezarriko dira. Ikuskapen programa hori publikoaren eskura egongo da, beste batzuen artean, bitarteko elektronikoaren bidez. Ikuskapen programa horrek aldizka egin beharreko ikuskapenen maiztasuna aurreikusiko du, zeina arriskuak ebaluatzeko metodo baten arabera finkatuko baita. Arriskuen ebaluazio hori egiteko, Zuzentzarauan ezarritakoari jarraiki, EMAS Europako Ingurumen Kudeaketa Sisteman izena emateari balioa emango zaio. Ikuskapen-txostenak IPPC operatzaileei jakinaraziko zaizkie eta argitaratu egingo dira.
- b) **Hondakinak kudeatzeko eta ekoizteko jarduerak kontrolatzea.** 2013an, ikuskapen-jarduerak ondoko alderdi hauetara zuzendu ziren, batik bat: eraikuntzako eta eraisketako hondakinak (EEH) eta tresna elektriko eta elektronikoaren hondakinak (TEEH) modu egokian kudeatzen zirela egiaztatzea, eta zaborteak eta betelanak kontrolatzea. Aurtengo ekitaldian, proiektu horien segimendu-faseei eutsiko zaie, eta ahalegin berezia egingo da zepen kudeaketa ikuskatzeari dagokionez. Gainera, kanpaina puntualak egingo dira beste mota batzuetako hondakinetan.
- c) **Ingurumen-arazoak konpontzen edo minimizatzen laguntzea.** Eremu honetan, aurreko ekitaldian amaitu gabeko proiektuekin jarraituko da –Donostialdeko usainak, Barbadun Beherea, Urola Garaiko airearen kalitatea, Pasaiako portua– eta zainketa egingo da ingurumen arazo edo gatazkaren bat sor dezaketen egoera berriak identifikatzeko.

- d) **REACH-CLP araudia ikuskatzea.** Aurtengo ekitaldian, REACH-CLP araudia gehituko da IPPC jardueren ikuskapenen irismenera, eta ikuskapen-jarduerak egingo dira hondakin batetik abiatuta substantziak berreskuratzen dituzten eremuan.
- e) **IPPC ez diren jarduerak ikuskatzea.** Ingurumen-arrisku potentzial handiko IPPC ez diren jardueren zerrenda bat edukitzea, urtean zehar ikuskatzeko, ikuskapen horiek programatutako gainerako ikuskapenekin tartekatuz, betiere ikuskapen programatuek lehentasuna dutela.
- f) **Programatu gabeko ikuskapenak.** Programatu gabeko ikuskapenek kexa, salaketa, gertaera edo istripuekin izango dute zerikusia. Horretarako, 24 orduko laguntza-zerbitzua egongo da abian, urtearen 365 egunetan, noiznahi egon dadin informazioa jasotzeko eta ebaluatzeko aukera, bai eta ingurumen-arriskuak edo kalteak ekiditeko komeni diren jarduerak hastekoa ere.
- g) **Sailburuordetzaren beste eremu batzuetako ikuskapen-premiak eta jarduerak identifikatzea.** Programa honen irismenak, ikuskapen-xedeari dagokionez, industria-jarduerak ikuskatzeko bokazioa du. Hori horrela izanik, aurtengo ekitaldian, ingurune naturaleko ikuskapen-premiak aztertuko dira, eta beroriek ikuskapen-programa bakar batean integratzeko bideak esploratuko.
- h) **Euskadiko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plana osatzen joatea,** Euskadiren eta bere administrazio-antolakuntza osoaren ikuspegia kontuan hartuta. Ildo horretan, ikuskapenaren antolakuntza konfiguratzeko proposamen bat egingo da, ingurumenaren arloan eskumenak dituzten administrazio eta organo guztiak aintzat hartuta eta arreta berezia jarriko Euskadiko administrazio orokorrean, lurraldekoetan eta tokikoetan. Zentzu horretan, kontuan hartuko da Ingurumen Sailburuordetzaren barruko antolakuntza eta Sailburuordetzarekin batera edo ingurumen-arloarekin zerikusia duten alderdietan eskumenak eduki ditzaketen Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko koordinazioa; adibidez, Osasun Sailarekin (Osasun Publikoaren eta Adizioen Zuzendaritza), Segurtasun Sailarekin (Larrialdi eta Meteorologia Arretarako Zuzendaritza, eta, bestalde, Ertzaintzako Ingurumen Unitatea), edota Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasun Sailarekin (Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza). Sailburuordetzaren esparruan, Ikuskapen Zerbitzuaren antolakuntzari buruzko gogoeta bat egingo da, gainerako administrazio-unitateekin eta Sailburuordetzaren parte diren IHOBE eta URA erakundeekin dituen harremanak aintzat hartuta.

3.1.- 2014ko helburu estrategikoak eta proiektuak.

Ondorengo taulan, Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planaren helburu estrategikoen garapenean, 2014ko ekitaldirako programatutako proiektuak daude jasota.

Planaren helburu estrategikoa	ERREFERENTZIA	PROIEKTUA	PROIEKTUAREN DESKRIKAPEN LABURRA
IPPC jarduerak ikuskatzea (2.2.1 atala)	2014/01	IPPC jardueren segimendua ikuskatzea	Industriako Igorpenen Zuzentarauaren, IPPC Legearen aldaketaren eta berorren Erregelamendua onartzen duen EDren araberrako ikuskapen-sistema ezartzea.
Hondakinak kudeatzea (2.2.2 atala)	2014/02	EEH eta TEEH proiektuen segimendua egitea	Arrisku handieneko legez kanpoko deposituak kontrolatzea, isurketak ekiditeko eta haiek berreskuratzea ziurtatzeko. Berriazko kanpainak egingo dira, beste mota batzuetako hondakinen kudeaketa egokia bultzatzeko: tresna elektriko eta elektronikoak, erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, zepak...
	2014/03	Zaborteaira sartzen diren hondakinak eta betelantako materialak kontrolatzea	Zabortegetan eta baimendutako betelantetan sartzen diren hondakinek eta materialek indarrean dagoen araudia betetzen dutela ziurtatzea.
	2014/04	Hondakin arriskutsuak (HA) eta materialak kudeatzea, jarduerak itxi ostean	Jarduera bertan behera uztean, bertako hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
	2014/05	Zepa siderurgiko eta metalurgikoak kudeatzea	Zepen kudeaketak indarrean dagoen araudia betetzen duela egiaztatzea.
Ingurumen-arazoak (2.2.3 atala)	2014/06	Donostialdeko usainak	Donostialdean izaten diren usainen iturriak identifikatzea, beroriek kontrolatuta izateko.
	2014/07	Pasaiako portua	Pasaiako portuko zamalantetan sortzen diren hauts-eta zarata-igorpenak maila onargarrietara murriztea.
	2014/08	Barbadun Beherea	IBI ebazpena betetzen dela eta IPPC jardueren funtzionamenduko baldintza ez-normalen kontrola ziurtatzea.
	2014/09	Urola Garaia (Zumarraga)	Partikula igorpenen kontrola eta airearen kalitatean duten eragina.
Abisuak/larrialdiak kudeatzea (2.2.4 atala)	2014/10	Abisuak kudeatzea	24 orduko erantzuna antolatzea, gertaera eta istripuetan sor daitezkeen abisuak eta hondakinak kudeatzeko. Ikuskapen Zerbitzuaren erantzuna antolatzea, Larrialdi Planen eta taktika operatiboan aurrean.
REACH-CLP aplikazioa (2.2.5 atala)	2014/11	REACH	REACH eta CLP araudiak betetzea, ingurumen-arrisku handieneko alderdietan.

Proiektu guztiak ondorengo egitura izango duen dokumentu batean garatzen dira:

1.	<i>Aurrekariak</i>
2.	<i>Proiektu mota</i>
3.	<i>Berariazko helburuak eta helmugak</i>
4.	<i>Jarduera-plana</i>
5.	<i>Adierazleak</i>
6.	<i>Baliabideak</i>
7.	<i>Segimendua</i>
8.	<i>Kronograma</i>
9.	<i>Eranskinak</i>

3.2.- 2014ko ikuskapen-proiektuak: berariazko helburuak eta helmugak.

Proiektuen berariazko helburuak eta helmugak zehaztuko ditugu jarraian, **Planaren helburu estrategiko** bakoitzaren barruan. Gainera, helburu estrategikoekin loturarik ez duten arren, Zerbitzuari dagozkion eginkizunak garatzeko beharrezkoak diren beste proiektu batzuk ere adieraziko ditugu.

3.2.1. 1. helburua: IPPC jardueretarako araudia jarraitasunez betetzea.

Helburu estrategiko honek lotura estua du «IPPC jardueren ikuskapena» izeneko hainbat urtetarako proiektuarekin.

Horixe da Ikuskapen Zerbitzuaren lehentasunezko proiektuetako bat, EAEn kutsadura-ahalmen handiena duten jarduerak ingurumenean izan dezaketen eragina kontrolatzea baitu helburu.

2013an, Industriako Igorpenen Zuzentaraua Estatuko legedira ekarri da 16/2002 Legea aldatzen duen 5/2013 Legearen eta geroztik onartutako 815/2013 Errege Dekretuaren bitartez. Horregatik, 2014tik aurrera, aipatutako araudian ezarritakoaren arabera egingo dira IPPC jardueren ikuskapenak.

Ikuskapen-programa honetan, I. eta II. eranskin gisa jasotzen dira IPPC jardueren ikuskapen programatuak eta programatu gabeak egiteko prozedurak. Honekin batera III eranskina ere doa, IRAM (Integrated Risk Assessment Method) metodoaren bidez ingurumen arriskuen ebaluazio sistematikoa egiteko prozedura orokorra. IV. eranskinean, 2014/01 proiektuko IPPC segimenduko ikuskapenetan barne hartzen diren jardueren zerrenda dator jasota (III. eranskina). Zerrenda horretan ez dira sartu ixtera doazela jakinarazi duten edo ixteko prozesuan dauden jarduerak, berariazko ikuskapenak egiten ari baitira jarduerak bertan behera uzteko proiektuan (2014/04 proiektua).

3.2.1.1. 2014/01 proiektua - IPPC jardueren segimenduaren ikuskapena

Proiektu honen **berriazko helburuak eta helmugak** ondokoak dira:

- IMPELek prestatutako arriskuen ebaluaziorako gidako IRAM metodologian oinarritutako arriskuak ebaluatzeko sistemaren garapen informatikoa amaitzea eta ezartzea.¹(III. Eranskina)
- Metodologia horren arabera arrisku handikotzat sailkatutako jardueren % 100 ikuskatzea. Helburu gisa jartzea operatzailearen irizpideak direla eta kategoria horretan dauden jardueren % 50 arrisku txikiagoko kategoria batera pasatzea.
- Urtero, arrisku ertainekotzat sailkatutako jardueren % 50 ikuskatzea. Helburu gisa jartzea operatzailearen irizpideak direla eta kategoria horretan dauden jardueren % 25 arrisku apaleko kategoria batera pasatzea.
- Arrisku apalekotzat sailkatutako jardueren herena ikuskatzea. Helburua kategoria horretan iraunaraztea da.
- Urteko ikuskapen-programak publikoaren eskura jarriko dira, eta ikuskapen-txostenak argitaratu egingo dira.

Ondorengo taulan, 5/2013 Legearen eranskinaren arabera jardura sektoreka adierazten dira urtero, bi urtean behin eta hiru urtean behin ikuskapena egin beharreko IPPC jarduerak, arriskuen ebaluazio sistematikorako prozedura aplikatu ostean. Ikuskapenen plangintza hiru urtera egiten da, baina urtero egingo da arriskuen ebaluazioa.

JARDUERA SEKTOREA	URTEROKO IKUSKAPENA	BI URTEZ BEHINGO IKUSKAPENA	HIRU URTEZ BEHINGO IKUSKAPENA	OROTARA
1 Errekuntza-instalazioak	1	2	3	6
2 Metalen ekoizpena eta eraldakuntza	10	53	58	121
3 Mineral-industriak	2	2	3	7
4 Kimika-industriak	3	9	15	27
5 Hondakinen kudeaketa	14	16	6	36
6 Egurretik eratorritako industria	2	4	6	12
9 Nekazaritzako elikagaien industriak eta abeltzaintzako ustiategiak	0	4	14	18
10 Disolbatzaile organikoen kontsumoa	1	5	4	10
OROTARA	33	95	109	237

¹ IMPEL, 2012. Easy Tools. *Risk Assessment Guidance Book*.

2014an, urteroko maiztasuna dagokien 33 enpresak ikuskatuko dira, bi urtez behingoa dagokienez % 50 (48 enpresa) eta hiru urtez behingoa dagokienez hirutatik bat (36 enpresa). Orotara, 117 IPPC jarduerari egingo zaie ikuskapen programatua.

3.2.2. 4. helburua: Hondakinen araudia betetzea.

Aurreko urteetan egindako ikuskapen-proiektuei esker, zera hauteman dugu: hondakin mota batzuen kasuan, hondakin horien ehuneko esanguratsu batentzat ez dagoela egiaztatuta kudeaketa-modu egoki bat. Horregatik, aurreko urteetan ezarritako neurrien eraginkortasuna ebaluatzeko eta, beharko balira, ikuskapen-jarduera berriak sustatzeko. Zentzu horretan, TEEHen eta EEHen ikuskapenen segimenduari erlacionatutako proiektu bat mantenduko da, bai eta zabortegei eta betelantetako hondakin sarreraren kontrolen jarraipenarekin ere. Zabortegetako hondakin-sarreraren kontrolatzearen bitartez, ziurtatu nahi da hondakinei beren arriskugarritasun-ezaugarriak eta instalazioen baimenei dagokien jomuga ematen zaiela. Era berean, baimendutako betelantetan sartzen diren materialak nolakoak diren egiaztatu beharra ezarri da, argi gera dadin ez dela modu hori erabiltzen hainbat hondakin bistatik kentzeko.

Hirugarren proiektuaren bitartez, enpresa batek bere jardueraren bertan behera uzten duenean abandonatzen diren hondakin eta materialen manipulaziotik erator daitezkeen ingurumen-ondorioak ezabatu nahi dira. Kasu gehienetan, enpresek beren itxiera jakinarazten ez dutenez, orain arte, abandonatutako materialen eta produktuen manipulazio txarraren ondorioz ingurumen-arrisku edo -eraginaren bat gertatu den jardueretan esku hartu izan da. Aipatutako proiektuaren bidez, zer enpresa itxi diren jakitea espero da, eta egoeraren diagnostiko bat egitea, biltegiatutako hondakinak eta substantzia/nahasketak pixkanaka kudea daitezkeen.

Aurtengoan, proiektu berri bat jarriko da abian, zepa siderurgiko eta metalurgikoen kudeaketa kontrolatzera zuzenduta egongo dena.

Eremu horretan, proiektu espezifiko bat eratu gabe, zenbait motatako hondakinen kudeaketa zainduko da, hala nola erabilpenetik kanpo dauden ibilgailuak, bateriak, zepak, etab. Gainera, nekazaritzan eskumena duen Sailarekin koordinazioa izango da, SANDACHen eraginpean dauden instalazioen kontrolari dagokionez. Beste esku-hartze puntual batzuk ere egingo dira, kokaleku inbentariatutako lurzoruen mugimenduak kontrolatzea xede izango dutenak.

Helburu estrategiko horri lotutako proiektuen berriazko helburuak eta helmugak ondoren daude jasota:

3.2.2.1. 2014/02 proiektua – Aurreko urteetako TEEH eta EEH proiektuen segimendua.

Berriazko helburuak eta helmugak

- Hornidura-kateetan bildutako TEEH ia guztiak kudeaketa-modu egokietara bideratzen direla egiaztatzea.
- Eraisketa-obra handietan sortutako EEHak 112/2012 Dekretuan ezarritakoari jarriki kudeatzen direla egiaztatzea.
- Arabar Errioxako eskualdean, hondakinak kudeatzeko jarduera integratuko proiektu pilotu bat sustatzea, gero beste eskualde batzuetara hedatzeko aukerak aztertzeke.
- EEHen eta TEEHen kudeatzaileei ikuskapenak egitea.
- Legez kanpoko deposituak eta sortzen diren berriak sistematikoki zaintzea, Ertzaintzako Ingurumen Unitatearekin koordinatuta.

3.2.2.2. 2014/03 proiektua - Zabortegetan hondakinak onartzea kontrolatzea eta kudeatzea, eta materialak kontrolatzea baimendutako betelanetan

Berriazko helburuak eta helmugak:

- EAEko zabortegetan, hondakin-sarreraren kontrol egokia egitea.
- Ez dadila hondakinik desbideratu EAEko ingurumen-organoak baimendutako betelan garrantzitsuetara.
- Zabortege baimendutako onarpen-kontrolak ikuskatzea.
- 2013an egindako betelanen ikuskapenen segimendua egitea, eta, hondakinak desbideratu diren susmoak egon litezkeen kasuetan, beroriek identifikatzea eta ikuskapenak egitea.

3.2.2.3. 2014/04 proiektua - Jarduera bertan behera utzi osteko hondakinen eta materialen kudeaketa.

Berriazko helburuak eta helmugak

- Ibilgura edo biltodira egin daitezkeen isurketak edo arriskuak ekiditea eta hondakinek lurzorua kutsatzea prebenitzea.
- Jarduera eten ostean, instalazioetan geratzen diren hondakinak eta materialak egoki kudeatzen direla ziurtatzea.
- Espedienteak berrikustea eta, behar denean, araudia indarrean dagoenetik jarduera bertan behera utzi duten IPPC jarduerak ikuskatzea.
- Bigarren fase baterako, sistematika bat ezartzea proposatzen da, EAEn jarduera uzten duten enpresak garaiz identifikatzeko eta, HAen Zerbitzuarekin batera, planteamendu bat diseinatzea, enpresa horietan ikuskapenak egiteko eta biltegiatutako hondakinak eta materialak kudeatzera behartzeko.

3.2.2.3. 2014/05 proiektua - Zepa siderurgikoen eta metalurgikoen kudeaketa.

Berariazko helburuak eta helmugak

- Zepa siderurgikoak eta metalurgikoak balioztatzeko bide baimenduetara doazela egiaztatzea, eta, halakorik ezean, ezabatu egiten direla.
- Zepa siderurgiko eta metalurgikoen ekoizle eta kudeatzaile nagusiak ikuskatzea.

3.2.3. 5. helburua: Ingurumen-arazoei soluzioak ematen edo kontrolatzen laguntzea

Planaren helburu estrategiko hori da Ikuskapen Zerbitzuaren emaitzak lortzera zuzendutako kudeaketara ondoen egokitzen denetako bat; batez ere, industria-jarduerek ingurumen-arazoetan daukaten eragina esanguratsua denean, ingurumen eta gizarte arloko gatazkak ere kontuan harturik. Urte batzuk badira jada hurbilpen horrekin lan egiten ari dela, eta emaitza onak lortzen ari da. 2014ari begira, 2013an planteatu edo hasitako proiektuekin eta beste berri batzuekin egingo du aurrera, eta helburu estrategiko hori da barnean proiektu gehien hartzen dituen.

Kasu horietako gehienetan jarraitzen den prozedura orokorra honako hau da:

1. Arazoa berrestea eta ezaugarriak finkatzea.
2. Iturriak identifikatzea eta zenbaterainoko eragina duten kalkulatzeko.
3. Administrazioaren esku-hartzea eragina edo arazoa kontrolatzeko.
4. Fase guztietan, gainerako organo eskudunekin eta parte interesatuekin koordinatzea.
5. Emaitzak ebaluatzea: arazoaren ebazpena edo proiektuaren berrikuspina egitea.

Helburu estrategiko horri lotutako proiektuen berariazko helburuak eta helmugak jarraian daude jasota:

3.2.3.1. 2014/06 proiektua - Donostialdeko usainak.

Berariazko helburuak eta helmugak:

- 2014an, eremuan izaten diren usain-boladen eragina murriztea.
- Administrazioetik esku hartzea, usain-boladak eragiten dituzten iturri horiek kontrolatzeko.
- Parte interesatuekin koordinazioa eta komunikazioa egotea.

3.2.3.2. 2014/07 proiektua – Pasaiako badia berroneratzea

Berariazko helburuak eta helmugak:

- Airearen kalitate- eta zarata-maila onargarriak mantentzea portu-inguruetan, bai eta badiako uren kalitatean ere.

- Airearen kalitatearen eta zarataren arloan herritarrei eragiten zaizkien eragozpenak sortzen dituzten gertaerak kontrolatzea, bai eta badiara egiten diren isurketena ere.
- Administrazio guztiekin koordinaturik jardutea (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Errenteriako Udala, Lezoko Udala, Pasaiaiko Udala eta Pasaiaiko Portuko Agintaritzak), eraturako mahaiaren bitartez.
- Eremuko airearen eta uraren kalitatea zaintzea.
- Portuko Agintaritzak eta Ingurumen Sailburuordetzak, nor bere eskumenen esparruan, Pasaiaiko portuan kokatutako jardueren lan-prozedurak betetzen direla zainduko dute.
- Uraren kutsadura ekiditeko, zuzenketa-neurriak abian jartzea sustatzea (dekantagailuak...)

3.2.3.3. 2014/08 proiektua – Barbadun Beherea

Berariazko helburuak eta helmugak:

- IBI ebazpenak betetzen direla eta funtzionamenduko baldintza ez-normalen kontrola ziurtatzea.
- Ekoizpen-jarduerak inguruko bizilagunei eragindako molestia puntualak minimizatzea, funtzionamenduko baldintza ez-normaletan ingurumen-eraginak kontrolatzeko prozedurak eraginkortasunez ezarri direla ziurtatuz.
- Jardueraren igorpenek ingurunean izan dezaketen ingurumen-eragina zaintzea.
- Tokiko administrazioekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Segurtasun sailekin koordinatutako erantzuna bideratzea, salaketa eta kexen aurrean.
- Informazio-eskaerei arreta egokia eskaintzea.

3.2.3.4. 2014/09 proiektua –Urola Garaia. Zumarraga.

Berariazko helburuak eta helmugak:

- Airearen kalitatearen lantaldearen esparruan –non udalek eta Ingurumen Sailburuordetzak parte hartzen baitute–, urte honetan, PM10 eta PM2,5 kutsatzaileei dagozkien airearen kalitate-helburuak betetzen laguntzea, aurreko 1073/2002 ED indargabetzen duen airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarilaren 28ko 102/2011 EDren arabera.
- Eskualdeko enpresa metalurgikoek eta siderurgikoek atmosferara egiten dituzten igorpen konfinatu eta barreiatuen kontrolerako abian jarritako zuzenketa-neurriek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.
- Eragin-eremuaren barruan, atmosferaren kutsadura (PM10 eta PM2,5, batez ere) eragin lezaketen beste iturri potentzial batzuk aurkitzea, egiaztatzea eta kontrolatzea.

3.2.4. 7. helburua: Ingurumenean eragina duten gertaera eta istripuei buruzko abisuak, kexak eta salaketak kudeatzea

Helburu estrategiko honek proiektu bat du 2014rako. Proiektuaren garapena ingurumenari buruzko abisu edo larrialdien kasuan 24 orduz arreta edo erantzuna ziurtatzera zuzenduta dago. Horretarako, bi laguntza teknikoren sostengua izango da aurrerantzean ere: biek txandaka egingo dute lan, bitarteko eta baliabide egokiak izan ditzaten abisuei erantzuteko eta, behar izanez gero, berorietan sortutako hondakinak kudeatzeko.

Ondoren azaltzen dira helburu estrategiko horri lotutako proiektuaren berariazko helburuak eta helmugak:

3.2.4.1. 2014/10 proiektua –Abisuen eta larrialdien kudeaketa

Berariazko helburuak eta helmugak:

- Urteko 365 egunetan, 24 orduz, ingurumenari buruzko abisuen erantzun eraginkorra kudeatzea.
- Planetan aurreikusiri jarraiki, ingurumenerako arriskua lekarketen egoerei Saitetik emandako erantzuna optimizatzea.
- Inplikaturako Sailekiko koordinazioa hobetzea (Segurtasuna, Osasuna, Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna, beste batzuk).
- 2013an egindako esku-hartzeak aztertzea eta optimizatzeko proposamenak egitea, ingurumen-gertaera edo larrialdietako esku-hartzeetarako.
- Aurreko puntuan identifikaturako premietara egokiturako laguntza teknikoak kontratatzea.
- Jarduteko prozedurak berrikusi eta eguneratzea.

3.2.5. 8. helburua: Gai kimikoen eta nahasketen araudia (REACH eta CLP) betetzea, ingurumenerako arrisku handieneko kasuetan

REACH erregelamenduak arautzen ditu substantzia eta nahasketa kimikoen **erregistroa, ebaluazioa, baimena eta murrizketa**, giza osasunaren eta ingurumenaren babes-maila altua bermatzeko eta, barneko merkatuan, substantzien zirkulazio askea ziurtatzeko helburuarekin. Fabrikatu eta inportaturiko substantzia batzuentzat, 2010eko abenduan amaitu zen erregistratzeko epea. Beste batzuk 2013ko edo 2018ko ekainerako erregistratu beharko dira, kantitatearen arabera.

CLP erregelamendua Europako arau bat da, substantzia eta nahasketa kimiko arriskutsuen **sailkapenari, etiketari eta ontziratzeari** buruzkoa. Erregelamendu berri horrekin, produktu kimikoak sailkatzeko eta etiketatzeako sistema berri bat ezarri da Europar Batasunean.

3.2.5.1. 2013/11 proiektua - REACH

Berariazko helburuak eta helmugak:

- REACH eta CLP araudien betetze-maila altua segurtatzea IPPC enpresetan eta EAEn berreskuratutako produktuetan.
- REACH-CLP araudiak integratzea IPPC enpresen ikuskapen-prozeduretan, eta esandako enpresek araudi horiek beteko dituztela ziurtatzeko jarduerak abian jartzea.
- Hondakinak berreskuratu eta produktu bihurtzen dituztenek REACH-CLP araudia zer mailatan betetzen duten diagnostikoa egitea, esandako araudiaren betetze-maila hobetzea segurtatzeko.
- Arlo honetan eskumenak dituzten beste organismo batzuekin koordinatuta lan egitea: Osasun Publikoa, Industria, Osalan, Kontsumoa...

3.2.6. 9. helburua: Ikuskapen-ahalmena handitzea.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren galga nagusia proiektuak egikaritzeko eskura dituen giza baliabide mugatuak dira. Hala ere, efektu biderkatzailea sortzea da garrantzizkoena ikuskapen ahalmena optimizatzeko, eskura dauden giza baliabideak eta bitarteko materialak egoki kudeatzearen bitartez eta, ikuskapenen osagarri eta sostengu gisa, Ingurumen Lankidetzako Erakundeak erabiliz.

Ondoren azaltzen dira eremu honetako zenbait jarduera-ildo:

- Ingurumen Lankidetzako Erakundeei buruzko Dekretuaren berrikuspena
- Ikuskapen-prozedurak eta informazioaren kudeaketa automatizatzea
- Airearen Kalitatea Zaintzeko eta Kontrolatzeko Sarearen baliabideetan sostengatzea
- Eskura dauden baliabide materialak kontrolatzeko eta erabiltzeko prozedurak eta inbentarioa
- Ikuskapen Zerbitzuko teknikariaren lana sistematizatzea eta harmonizatzea, prozesuaren kudeaketan kalitate-irizpideak mantentzearen bidez.

3.2.7. 10. helburua: Ikuskapenak Europako testuinguruaren arabera egitea.

Helburu honen xedea honako hau da: Ikuskapen Zerbitzuaren jarduerak egokitu daitezela egun dugun testuingurura, hala Estaturora nola Europakora, eta ikuskapenarekin zerikusia duten fase guztietan har daitezela haiek kontuan, araugintzarako irizpideetatik hasi eta ikuskapenak gauzatzeari dagozkionetara heldu arte. Horretarako, elkarrekin lan egiteko eta informazioa trukatzeko foroak daude, non Ikuskapen Zerbitzua partaide den eta parte-hartze aktiboa duen, hala nola REDIA, ingurumen-ikuskapen agintaritzen sarea (autonomia-erkidegoak eta Ministerioa) eta IMPEL (Europako Esparru Ekonomikoko estatuak; Europar Batasuna, batik bat).

4. GIZA BALIABIDEEN ANTOLAKUNTZA.

2014an, Ikuskapen Zerbitzuak aurreko urtean zuen egitura berbera mantenduko du: zerbitzuburu bat (1), zortzi (8) ikuskapen-teknikari, lege-aholkularitza eta administrazio-sostengua. Ikuskapen-teknikarietako bi Bizkaiko Lurralde Historikoan daude (Bilbon dute bulegoa), eta beste bi Gipuzkoako Lurralde Historikoan (Donostian dute bulegoa).

Programatutako jarduerak dauden baliabideetara egokituta daude, eta aurreikusita dago ingurumen-ikuskatzaileen prestakuntzan eta profesionalizazioan aurrera egitea, zehazten diren planen arabera, betiere, egiten diren lanetarako gaitasun teknikoak ziurtatzeko xedez.

Ikuskapen programako helburuak betetzeko estrategia gisa, 2011-2018 Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planetik eratorritako gidalerroei jarraiki, kanpoko laguntza teknikoak kontratatzea aurreikusten da 2014ko ikuskapen-programan jasotako jardueraren bat edo bestetarako sostengu modura.

5. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA.

Sistema honetan, oinarrizko informazioa sortzea eta tratatzea bilatzen da, ikuskapenen plangintza eta programazioa egiteko (zerrendak, legez kanpokoak identifikatzea,...)

2014an eremu honetan egingo diren jarduerak Ikuskapen Zerbitzuaren informazioa kudeatzeko prozedura baten prestakuntzan zentratuko dira. Prozedura horrek ondorengoak izango ditu kontuan:

- Ikuskapenaren xede diren jardueretara zuzendutako informazioa.
- Saileko beste zerbitzu batzuekin eta beste administrazioekin partekatuko den informazioa.
- Publikoaren eskura jarri beharko den informazioa, ingurumen-informaziora heltzeko eskubidea errespetatzeko. Aintzat hartu beharko ditu Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plana, laneko prozedura orokorrak, ikuskapenerako eta kontrolerako urteko programak eta memoriak, eta IPPC instalazioen ikuskapen-txostenak.

6. KONTROL PLANA.

Beharrezkoa da kontrol-estrategien azterketa bat egitea, berorien onuren eta kostuen ebaluazioa barne dela, berariazko kontrol-plan zabalago bat bultzatzea komeni ote den –eta hari dagokion araudiaren garapena– erabakitzeke xedez.

7. INGURUMEN ARAUDIA ETA DIZIPLINA.

2011-2018 aldirako Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planean adierazten den bezala, beharrezkoa da ikuskapenaren lege-esparru eguneratua edukitzea, ikuskapen- eta kontrol-antolakuntzaren araudia garatzea, eta ingurumen-diziplina aplikatzea, ikuskapenetatik eratorritako espedientei dagokienez.

8. INGURUMEN IKUSKAPENERAKO ETA KONTROLERAKO PROGRAMA BERRIKUSTEA.

Proiektuetako bakoitzean egikaritze-kontrolerako adierazle batzuk ezarriko dira, eta proiektuen segimendua egitea ahalbidetuko dute. Oinarrizko irizpide gisa, aurten proiektuen segimendua gutxienez sei hilean behin egitea planteatu da.

Ikuskapen Zerbitzuko giza baliabideak faktore mugatzailea dira Ingurumenaren Ikuskapen eta Kontrolerako Programa hau guztiz garatzeko. Horregatik, lehenetsun

handieneko proiektuekin hasia proposatu da, gainerakoak baliabideen arabera aurrera eramateko.

Barneko segimenduak Programaren egikaritzea doitu joatea ahalbidetuko du, ingurumenaren aldetik garrantzi edo arrisku handiena dutenei lehentasuna emanez. Segimendu hori Ingurumen Sailburuordetzaren bileren bitartez egingo da; bilera horietan, zuzendaritza-taldeak eta Sailburuordetzako zerbitzu teknikoetako langileek parte hartuko dute.

9. ERANSKINAK.

9.1.- Programatutako IPPC jarduerak ikuskatzeko prozedura.

INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARITZA

IZENBURUA: PROGRAMATUTAKO IPPC JARDUERAK IKUSKATZEKO PROZEDURA
Erreferentzia: PG-DAA-SI-01
Berrikuspena: 02

AURKIBIDEA

1.- XEDEA2
 2.- IRISMENA.....2
 3.- IKUSKAPENEN PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA.....2
 4.- INGURUMEN IKUSKAPENA. FASEAK3
 5.- IKUSKAPEN AKTA.....3
 6.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK3
 7.- IKUSKAPEN TXOSTENA.....3
 8.- INGURUMEN ARRISKUAREN EBALUAZIOA4
 9.- SEGIMENDU EKINTZEN IKUSKAPENA4

Berrikuspenen kontrola

Berrikuspena	Data	Berrikuspenaren zergatia
01	2011/08/31	Prozedura egitea
02	2014/01/28	Prozeduraren osoko berrikuspena

1.- XEDEA

Prozedura honen xedea Ikuskapen Zerbitzuko (IZ) teknikariek programatutako IPPC jardueren ikuskapen prozesuan erabili beharreko metodologia zehaztea da.

2.- IRISMENA

Dokumentu hau IPPC enpresei egin beharreko ikuskapen programatuetan aplikatuko da, urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua betetzeko, zeinak industriako isurpenen Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen baitu.

3.- IKUSKAPENEN PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA

Euskadiko Ingurumen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Planak arautzen du ingurumena ikuskatzeko eta kontrolatzeko zereginak programatzeko eta egikaritzeko sistematika. Plangintza hori hainbat urtetara begira egiten da, eta bere edukiaren barruan zehazten da berori garatzeko eta ezartzeko estrategia.

Urtero egiten den Ingurumenaren Ikuskapenerako eta Kontrolerako Programak jasotzen du IPPC jardueren segimendurako ikuskapenen programazioa.

Jarduera berrien kasuan, abian jarri den urtearen hurrengo urterako programatuko da ikuskatze-bisita.

Gainerako jardueretan, hasierako egoera batetik abiatuta egiten da ikuskapena; egoera horretan, ikuskatu beharreko instalazio guztiei egindako ingurumen-arriskuen ebaluazioa edukiko da. Aipatutako ingurumen-ebaluazioaren emaitzaren arabera, jarduera bakoitza zenbatean behin ikuskatu erabakiko da, urtebete eta hiru urteren artean.

Ingurumen-arriskuen ebaluazioa V77b aplikazio informatikoaren bitartez egiten da, IRAM metodoaren arabera arriskuak ebaluatzeko PG-DAA-SI-ER-IRAM prozeduran deskribatutako jarraibideak aplikatuz.

Ikuskapen-programan, jasoko dira bai aurreko urtean abian jarritako jarduera berriak eta baita ikuskatu beharreko jardueren zerrenda, egindako arriskuen ebaluazioaren arabera.

4.- INGURUMEN IKUSKAPENA. FASEAK

Dagokion urteko programaren barruan ikuskatu beharreko IPPC jardueren zerrenda prest dagoenean, ikuskapen-organoko kide diren ikuskatzaileen artean banatuko dira jarduerak, barne-antolaketa egin dezaten.

Ikuskatzaile bakoitza arduratuko da ikuskapena egiteko izendatu zaizkion enpresak kudeatzeaz.

Oro har, ikuskapenak ondorengo fase hauek izango ditu:

- Ikuskatze-bisita prestatzea
- Ikuskatze-bisita egitea

- Emaitzak aurkeztea eta jardutea
- Jardueraren ingurumen-arriskuaren ebaluazioa egitea

Ikuskapena egiteko, IPPC jarduerak ikuskatzeko PG-DAA-01-IPPC barne prozedurako metodologia jarraitzeaz gainera, Ikuskatzailearen Eskuliburuan jasotako irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Izendatutako erakundeek, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29.1 artikulua araber, funtzionario publikoentzat erreserbatuta ez dauden ikuskapen-jarduerak egikaritu ahalko dituzte.

Ikuskatzaileak aholkulari teknikoak lagun dituztela joan ahalko dira, baina azken horien egitekoa ezagutza teknikoetan oinarritutako aholkuak ematera mugatuko da; ez dute inoiz agintaritzaren agentearen eginkizunik izango.

Aholkulari teknikoak eta izendatutako erakundeak organo eskudunen bitartez behar bezala identifikatuta egongo dira; gainera, beren funtzioak burutzean ezagutzen dituzten datuak eta informazioak isilpean gorde beharko dituzte.

Ikuskapen batean nabarmen geratzen bada ingurumen-baimen integratuaren baldintzak ez dituztela betetzen, uztailaren 1eko 16/2002 Legean aurreikusitako zehapen-araubidearen kaltetan izan gabe, sei hilabeteko gehieneko epearen barruan, beste bisita bat egingo da instalaziora.

5.- IKUSKAPEN AKTA

Ikuskapena amaitu eta berorren emaitza gisa, ikuskapen-akta bat idatziko da; bertan, ikuskatu diren alderdiak eta ikusitako gertaerak jasoko dira. Akta, agiri publiko gisa, ikuskatzaileak izenpetu beharko du, eta jardueraren ordezkariari eskainiko zaio izenpetu dezan; ordezkariak sinatu nahi ez badu, Aktan adieraziko da ez duela izenpetu nahi izan. Era berean, aktaren kopia bat emango zaio jardueraren ordezkariari.

Ikuskatze-zereginen ardura duten funtzionarioek egiaztaturiko egitateek frogabalia izango dute; hala eta guztiz ere, administratuek frogak aurkeztu ahal izango dituzte, beren eskubideak edo interesak aldeztuko.

6.- BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK

1. Zehapen-prozedura behin hasita denean, hura ebazteko eskumena duen organoak, ofizioz edo alde batek eskatuta, noiznahi, zergatien azalpena barne duen akordioaren bitartez, egoki irizten dituen behin-behineko neurriak ezarri ahalko ditu ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko eta giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak edo kalteak mantentzea ekiditeko, eta haien babeserako ezinbestekoak diren neurriak aginduko ditu, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 34. artikuluan xedatuaren araber.
2. Helburu berberarekin, larrialdi-kasuetan eta inplikaturako interesak behin-behinean babesteko, ezinbesteko behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu, zehapen-prozedura hasi aurretik; horrelakoetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 72.2 artikuluan ezarritako mugak eta baldintzak bete beharko ditu, bai eta aplikatu beharreko gainerako arauak ere, eta ezingo da ezin kasutan gairitu indarrean dauden araudiak markaturako epea.

3. Behin-behineko neurriak arrazoizkotasunean oinarrituta hartuko dira, eta titularraren egoera juridikoa gutxien kaltetzen duena hautatuko da.

7.- IKUSKAPEN TXOSTENA

Programatutako bisita bidez ikuskatutako IPPC jarduera bakoitzeko, ikuskapen-txosten bat egingo da, eta bertan jasoko dira instalazioaren ingurumen-baimen integratuko baldintzak betetzeari buruzko ondorioak eta beharrezkoak diren ondorengo esku-hartzeen ingurukoak. Ikuskapenaren emaitza gogobetekoa denean, interesatuari jakinarazten zaio, eta ez denean, berriz, dagokion errekerimendua eta/edo zehapen-espeditentea irekitzeko proposamena jakinaraziko zaio.

Txostena bi hilabeteko gehieneko epean jakinaraziko zaio titularrari, bisita amaitu den egunetik zenbatuta, eta hamabost eguneko epea izango du komenigarriak ikusten dituen alegazioak aurkez ditzan.

Halaber, ingurumen-organoak argitara emango du esku-hartzeei buruzko txostena, lau hilabeteko epean, ikuskapena egin zen datatik zenbatuta.

8.- INGURUMEN ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Ikuskapen-txostena egin ostean, jardueraren arriskuen ebaluazioa egingo da, ikuskapenak egiteko V77b tresna informatikoa erabilita.

Arriskuen ebaluazio hori erabiliko da IPPC enpresen urteko sailkapena egiteko, eta enpresa bakoitzaren ingurumen-arriskuan oinarrituta, ikuskapen-maiztasuna erabakiko da.

9.- SEGIMENDU EKINTZEN IKUSKAPENA

Baldin eta errekerimenduan operatzaileak egin beharreko zenbait jarduera ezartzen badira –informazio-eskaerei erantzutetik hasi eta dagozkion zuzenketa-neurriak hartzeraino–, jarduera horien segimendu egokia egingo da ikuskapen dokumentalen bidez, tokian egindakoen bitartez, eta abar.

9.2.- Programatu gabeko ikuskapenatarako prozedura

IZENBURUA: PROGRAMATU GABEKO IKUSKAPENAK KUDEATZEKO PROZEDURA OROKORRA

Erreferentzia: PG-DAA-SI-INP-001

Berrikuspena: 00

AURKIBIDEA

1. - XEDEA.....	2
2. - IRISMENA.....	2
3. - ANTOLAKUNTZA.....	2
4. - ABISUAREN KUDEAKETA.....	3
4.1. - Abisua jasotzea.....	3
4.2. - Trataera.....	3
4.3. - Erabakia.....	3
4.4. - Ebaluazioaren datuak sartzea eta, behar denean, V77n jardutea.....	4
4.5. - Ebaluaziotik eratorritako ekintzak.....	4
4.6. - Abisua ixtea.....	4

Berrikuspenen kontrola

Berrikuspena	Data	Berrikuspenaren zergatia
00	2013/04/11	Dokumentua prestatzea
01	2014/01/28	Berrikuspen orokorra

1.- XEDEA

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuaren (aurrerantzean, IZ) eginkizunetako bat EAEn gertatutako ingurumen-arazo edo -alderdien inguruko istripu eta gertaerei buruzko abisuak, kekek, jakinarazpenak eta erreklamazioak (aurrerantzean abisuak) jasotzea da. Horiek guztiak konpontzean sortzen den kasuistika handia eta IZren egitura eta funtzionamendua kontuan hartuta, beharrezkoa gertatzen da metodologia bat zehaztea, zerbitzuko langileek nola jokatu jakin dezaten, sortzen zaizkien egoeretan.

2.- IRISMENA

Hainbat estamentu, enpresa edo herritarrengandik jasotako abisuak, kekek, jakinarazpenak edo erreklamazioak direla eta (aurrerantzean, abisuak), ingurumen-gertaera bati erantzuteko xedez, egin beharreko ikuskapenei aplikatuko zaie prozedura hau.

Ingurumen-gertaera horrek lotura izan dezake eguratsera egiten diren igorpenekin, usainekin, zaratarekin, isurpenekin, lurzoru kutsatuekin, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak uztearekin, suteekin, likido-isurpenak sortzen dituzten ibilgailuen istripuekin eta, oro har, ingurumenean eragina duen edo izan dezakeen edozein jazoerarekin.

3.- ANTOLAKUNTZA

Larrialdiei eman beharreko erantzunaren antolakuntza eta koordinazioa, EAEn lurraldean, Larrialdiei Aurre egiteko eta Babes Zibilerako Zuzendaritzari dagokio. Horretarako egiten dira –eta praktikan jartzen– babes zibileko planak, larrialdi-planak eta taktika operatiboak. Hortaz, larrialdi guztiei eman beharreko erantzunak, ingurumen-larrialdiak barne, Larrialdiei Aurre egiteko Zuzendaritzak koordinatzen ditu. Praktikaren ikuspegitik, talde teknikoetan, guardian dagoen aipatutako Zuzendaritzako teknikaria izango da larrialdiaren koordinatzailea, eta, beraz, alde batetik, berak izango du gauzatuko diren esku-hartzeei buruzko informazioa, eta, bestetik, bera izango da erreferentzia, beharrezkoa ikusten bada, zenbait baliabide mobilizatu behar diren kasuan.

Ingurumen Ikuskapen Zerbitzuari jakinarazten zaizkio –bera baita organo eskuduna– Ingurumen Sailburuordetzan jasotako abisu guztiak, baldin eta ingurumenean eragina izan badezakete.

Ikuskapen Zerbitzuak guardia sistema bat dauka abian, zeinaren indarrez, astero, Zerbitzuko teknikari bati egozten zaion denbora tarte horretan jasotzen diren abisuak kudeatzeko eta itxita uzteko ardura. Barruko sarea *planning* bat dago erabakita, eta bertan dago identifikatuta une bakoitzean guardian dagoen teknikaria.

Abisuak kudeatzeko, Ikuskapen Zerbitzua laguntza teknikoetan sostengatzen da, haren izenean jarduten baitute hauek administrazioari dagokion partean eta kudeaketan; izan ere, edozein motatako ingurumen-gertaeratan egiaztapenak egiteko behar bezala prestatutako langileak dituzte.

Abisua jasotzea –prozedura honen 4. atalean adierazitakoaren arabera–, kudeatzea eta ixtea, kasua hala denean, Laguntza Teknikoaren ardura izango da urteko 365 egunetan,

egunaren 24 orduak estaltzen direla, eta egindako kudeaketa eta ixtea gainbegiratzearen ardura, berriz, guardian dagoen Ikuskapen Zerbitzuko teknikariarena izango da.

Laguntza Teknikoek guardian dagoen teknikariarekin koordinazioan egingo dute lan, eta azken honi jakinaraziko dizkiote haien kontrolpeko ordutegian jazotako gertaerak. Jakinarazpen hori telefonoz egingo da ingurumen aldetik garrantzizkoak jotzen diren abisuen kasuan, eta posta elektronikoaren bitartez, egunero, eta aurreko eguneko abisu bakoitzean sortutako txostenak igorri beharko dira.

Ingurumenean eta giza osasunean –ospitaleratu beharra, esaterako– eragin larriak izateko arriskua duen gertaera garrantzizkoren bat gertatzen bada, edo, berorien tratamenduak kostu ekonomiko handia badakar, berehalaxe jakinarazi beharko zaio Ikuskapen Zerbitzuko arduradunari edo Ingurumen Administrazioako Zuzendaritzari, laneko orduetatik kanpo izanik ere, jakin dezaten eta erabakian har ditzaten.

4.- ABISUAREN KUDEAKETA

Jasotako edozein abisu kudeatzeko orduan, ondorengo pauso hauek emango dira:

4.1.- Abisua jasotzea.

Ondorengo bide hauetakoren batetik jaso ahalko da abisua: telefonoz, SOS DEIAK, herritarren idazkiak, beste administrazio batzuen idazkiak, enpresa, elkarte edo talde ekologisten idazkiak, on line jasotakoak –sailaren web orriaren bitartez–, beste zerbitzu batzuen e-mail bidez, enpresen mezu elektronikoak, etab. Abisuak jasotzeko ardura duen pertsonak V77 aplikazioan sartuko ditu jasotako datu guztiak.

4.2.- Trataera.

Abisu motaren arabera, bakoitzaren trataera desberdina izango da, nahiz eta badiren zenbait puntu zeinahi motatako trataeratan kontuan hartu beharrekoak:

- a) Jasotako informazioa aztertzea.
- b) Jasotakoaren informazio osagarria biltzea Ikuskapen Zerbitzuko beste datu-base batzuetatik, Internetetik, airearen edo uraren kalitate-sareetatik, eta abar. Era berean, gertaera izan den tokira bertaratu den Udaltzaingoko edo Ertzaintzako kidearen edota URAko teknikariaren berrespena lortu beharko da.

4.3.- Erabakia

Hasierako informazioan eta beste iturri batzuetatik bildutakoan oinarrituta, abisua kudeatzearen ardura duen teknikariak erabakiko du:

- a) Abisu-espeditatea ixtea pertsonen osasunean eta segurtasunean edo Ingurumenean eraginik ez baldin badu, abisu mota bakoitzean zehaztutako Jarraibide Teknikoen arabera.
- b) Bulegotik abisuaren segimendua egitea, ingurumen-zainketarako sistemek emandako informazioaren bitartez eta abisuan inplikatuak dauden beste alde batzuen informazioa erabiliz, adibidez, abisua eman duenarena edo abisuaren kudeaketan parte hartzen duten beste talde batzuen (larrialdietako teknikariak, osasun publikokoak, URA, Ertzaintza, udal-teknikariak...)

c) Gertaera izan den lekuan ikuskapen bat egitea, aplikatzekoak diren Jarraibide Teknikoetan deskribatutakoaren arabera.

Ingurumen-arazoei, istripu larriei, ingurumen-gertaerei eta arauak ez betetzei buruzko salaketa larriak ikertzeko programatu gabeko ingurumen-ikuskapenak ahalik eta azkarren egin beharko dira, eta, kasua hala bada, ingurumen-baimen integratua eman baino lehen edo aldaketa garrantzizkoren bat egin edo berrikusi aurretik.

4.4.- Ebaluazioaren datuak sartzeta eta, behar denean, V77n jardutea

Osatu V77 aplikazioan datuak sartzeta, hartutako erabakiaren eta egindako kudeaketen arabera

4.5.- Ebaluaziotik eratorritako ekintzak

Osasuna eta ingurumena babesteko behin-behineko neurriak larrialdi-kasuetan

Ingurumen-ikuskatzaileak, larrialdi-kasuan eta inplikaturik dauden interesak babesteko, behin-behineko neurriak hartu ahalko ditu.

Neurri horiek egokiak eta ezinbestekoak jotzen dituenak izango dira giza osasunerako eta ingurumenerako arriskuak edo kalteak mantentzea ekiditeko, edo etor litekeen ebazpen administratiboaren eraginkortasuna ziurtatzeko. Behin-behineko neurriak arrazoizkotasunean oinarrituta hartuko dira, eta titularraren egoera juridikoa gutxien kaltetzen duena hautatuko da.

Larrialdirik gabeko kasuetako ekintzak

Larrialdirik ez dagoen kasuetan, informazioa bildu eta ebaluatu egingo da, aplikatuko den neurria ezartzeko, bat baino gehiago ezarri ahal izatea baztertu gabe:

- Jakinarazpena. Egindako txostenak bidaltzea, gauzatutako jardueren berri izan dezaten.
- Errekerimendu idatzia informazio gehigarria bidal dezaten edo, epe jakin batean, zuzenketa-neurriak gauza ditzaten.
- Zehapen-espedientea irekitzeko proposamena.

Ikuskapen-txostenak egitea

Abisu bat eragin duen jarduerak bertara bisita egitea eskatzen baldin badu, txostena egiteko, jarduera horri txostena bidaltzeko eta argitara emateko prozedurak indarrean dagoen araudiaren arabera gauzatuko dira.

4.6.- Abisua ixtea.

4.3.a) atalean adierazitakoa gorabehera, espedientea itxi egingo da abisuaren arduradunak irizten badio amaitu direla gertaeraren ebazpenean aurreikusitako jarduera guztiak eta dokumentazio gehiago sortzea aurreikusten ez bada.

Abisuaren itxiera V77 aplikaziora lekualdatuko da, eta abisuaren parteari lotutako formularioak beteko dira horretarako.



9.3.- IRAM (Integrated Risk Assessment Method) metodoaren bidez ingurumen arriskuen ebaluazio sistematikoa egiteko prozedura orokorra

TITULUA: IRAM (Integrated Risk Assessment Method) METODOAREN BIDEZ INGURUMEN ARRISKUEN EBALUAZIO SISTEMATIKOA EGITEKO PROZEDURA OROKORRA

Erreferentzia: PG-DAA-SI-ER-IRAM

Berrikuspena: 00

AURKIBIDEA

1.	AURREKARIAK	27
2.	HELBURUA ETA IRISMENA.....	28
3.	ARRISKUAK EBALUATZEKO METODOLOGIA.....	28
3.1.-	IRAM PRINTZIOAK	28
3.2.-	FAKTOREAK ETA HAZTATZE TERMINOAK	29
3.3.-	ARRISKU INDIZEA ETA ARRISKU KATEGORIA.....	29
4.	ARRISKUAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	30
4.1.-	INPAKTU IRIZPIDEAK 30	
4.2.-	OPERATZAILE IRIZPIDEAK 35	
5.	ARRISKUEN EBALUAZIOAREN AZKEN EMAITZA. ARRISKU INDIZEA ETA ARRISKU KATEGORIA.....	38
6.	ARRISKUEN EBALUAZIO BAT ADIBIDE GISA	39
7.	ARRISKUEN EBALUAZIORAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA	41
8.	ERANSKINAK.....	41
I.	ERANSKINA BANDA IZENDAPENA KONPLEXUTASUN IRIZPIDEAN.....	42
II.	ERANSKINA AIREKO ETA URETAKO KUTSATZAILEEN ERREFERENTZIA-BALIOEN TAULA	48
III.	ERANSKINA DESBIDERATZE ZERRENDA.....	54
IV.	ERANSKINA ZIURTAGIRI GABEKO ENPRESETAN INGURUMEN KUDEAKETA KALKULATZEKO GALDEKETA.....	74

Berrikuspenen kontrola

Berrikuspena	Data	Berrikuspenaren arrazoia
00	2014.10.01	Agiria lantzea



1. AURREKARIAK

Ikuskapen Zerbitzuak Erresuma Batuko OPRA sisteman oinarritutako arriskuak ebaluatzeko tresna bat garatu zuen 2005ean, arriskuan oinarritutako ikuskapen programak egiteko xedez.

Geroztik Zerbitzu honek, IMPELen esparruan, arriskuen ebaluazioak ikuskapenaren barruan duen garapen kontzeptual eta metodologikoarekin zuzeneko zerikusia duten hainbat proiektutan parte hartu du, horien artean:

- Ikuskapenen plangintzarako gida², 2008. Gida honetan, arriskuaren ebaluazioa tresna gisa markatzen da lehentasunak erabakitzeke, eta metodologiaren erreferentzia bat ezartzen da
- Ikuskapeneko helburuak ezartzea eta egikaritzaren jarraipena. 2011.³
- Easy tools. Arriskuak ebaluatzeko gida. 2012⁴
- Arriskuen ebaluaziorako aplikazio informatikoa. Easy tools.
<https://www.fms.nrw.de/lip/authenticate.do>

2010ean, Industriako Isuriei buruzko Zuzentaraua (DIE)⁵ argitaratu zen. Zuzentarau hori 2013an txertatu zen gure ordenamendu juridikoan, IPPC⁶ Legearen aldaketaren eta Lege hori garatzen duen Erregelamendua ezartzen duen EDaren⁷ bitartez. Oinarrian, araudiak dio IPPC jardueren ikuskapen maiztasuna urterokoa izango dela arrisku handieneko jardueren kasuan eta hiru urtean behingoa arrisku txikia dutenean. Adierazten du, orobat, arriskuen ebaluazioak, gutxienez, ondorengo irizpideok hartuko dituela kontuan:

- a) Instalazioek giza osasunean eta ingurumenean duten inpaktu potentziala eta errealia, isuri mailak eta motak, tokiko ingurumenaren sentiberatasuna eta istripu arriskua kontuan hartuta.
- b) Ingurumen baimen integratuko baldintzen betetze historiala.
- c) Titularrak parte hartzea ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzako EMAS sisteman, apirilaren 5eko 239/2013 Errege Dekretuaren arabera, zeinak ezartzen baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 1221/2009 (EE) Erregelamendua (erakundeek ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritzako Europako erkidegoko EMAS sisteman beren borondatez parte hartzeari buruzkoa) aplikatzeko arauak eta 761/2001 (EE) Erregelamendua eta 2001/681/EE eta 2006/193/EE Erabakiak indargabetzen baititu

² "Doing The Right Things II. Step-by-step guidance book for planning of environmental inspection"

<http://impel.eu/wp-content/uploads/2010/02/2007-11-dtrt2-step-by-step-guidance-book-FINAL-REPORT.pdf>

³ "Setting Inspection Targets and Monitoring Performance"

<http://impel.eu/projects/setting-inspection-targets-and-monitoring-performance/>

⁴ "Development of an easy and flexible risk assessment tool as a part of the planning of environmental inspections linked to European environmental law and the RMCEI (easyTools), "

<http://impel.eu/projects/development-of-an-easy-and-flexible-risk-assessment-tool-as-a-part-of-the-planning-of-environmental-inspections-linked-to-european-environmental-law-and-the-rmcei-easytools-phase-2/>

⁵ 2010/75/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, azaroaren 24koa, industriako isuriei buruzkoa (kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratua).

⁶ 5/2013 Legea, ekainaren 11koa, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldatzen dituena

⁷ Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretua, industriako isurien Erregelamendua onartzeaz gainera, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzen duena



Prozedura honetan jasotzen da IRAM metodoaren egokitzapena Euskadiren kasuan IPPC Legea eta Erregelamendua betetzeko.

2. HELBURUA ETA IRISMENA

Prozedura honen xedea Euskadiko IPPC jarduerari aplikatuko zaien arriskuak ebaluatzen metodologia ezartzea da, arriskuen proportziokoa izango den ikuskapen maiztasuna erabaki eta indarrean dagoen araudia betetzeko (815/2013 EDko 23. artikulua).

3. ARRISKUAK EBALUATZEKO METODOLOGIA

IPPC instalazioetako ikuskapen maiztasuna erabakitzen Euskadin aplikatuko den arriskuak ebaluatzen metodologia IRAM (Integrated Risk Assessment Method) metodoan oinarritzen da, zeina Europako IMPEL sarean garatu baita. Metodo horretan, instalazio baten arriskua honela definitzen da: jarduerak ingurumenean edo pertsonen osasunean izan dezakeen inpaktu potentziala, kontuan harturik operatzaileak zenbateraino betetzen duen araudia eta nolako ingurumen-kudeaketa egiten duen.

Hortaz, arriskua ondorioen larritasunaren (Efektua) eta ondorio horiek gauzatzeko duten probabilitatearen (Probabilitatea) arabera izango da

$$\text{ARRISKUA} = \text{PROBABILITATEA} \times \text{ONDORIOAK}$$

Efektua iturriaren eta hartzailearen (ingurunearen zaurgarritasuna) mende dago eta inpaktu irizpideen (II) bitartez adierazten da

Probabilitatea, berriz, operatzailearen jokabidearen mende dago: legea zenbateraino betetzen duen, ingurumena nola kudeatzen duen, zer jarrera duen eta/edo instalazioaren adina. Operatzailearen jokabidearen irizpideen (OI) bitartez adierazten da

IRAM metodoak inpaktu irizpideen eta operatzaile irizpideen arteko aldea ezartzen du. Inpaktu irizpideak –operatzaile irizpideek garrantzi handia dute haztatzea egitean– zuzenean lotzen dira arrisku indizearekin (AI), hau da arrisku kategoriarekin (AK) eta, hortaz, ikuskapen maiztasunarekin.

3.1.- IRAM printzipioak

Metodo honek ondorengo printzipioak jarraitzen ditu jarduerak sailkatzeko:

1. Arrisku Indizea Inpaktu Irizpideen puntuazio maximoaren balioak zehazten du, Operatzaile Irizpideekin haztatu ostean
2. Arrisku Indizea maila bat jaisten da aurrez ezarritako puntuazio maximoen zenbatekoa («erregela» deitua) betetzen ez bada
3. Arrisku Indizeak maila bakar bat egin dezake gora edo behera operatzailearen jokabidea kontuan hartuta. Jokabide hori honela puntuatzen da: -1 (ona), 0 (neutroa edo neurritsua) edo 1 (txarra)



4. Puntuazioen batura zenbat eta handiagoa den, orduan eta denbora gehiago sartu beharko da ikuskapenean.

3.2.- Faktoreak eta haztatze terminoak

II eta OI guztiek ez dute garrantzi berdina Arrisku Indizea zehazterakoan. Organo eskudunak sar ditzake haztatze edo ponderazioak irizpideren bati besteen aldean pisu handiagoa emateko. Haztatze horri esker arriskuaren ebaluazioa doitu eta lehentasunak ezartzeko aukera dago. Ildo horretan, bi haztatze mota aplika daitezke:

- Haztatze terminoa (HT): inpaktu irizpideei batuta aplikatzen da

$$II_i \text{ haztatua} = II_i + HT.$$

II guztiei pisu berbera eman nahi zaienean, haztatze terminoa $HT = 0$ izaten da

- Haztatze faktorea (HF): operatzaile irizpideak biderkatuz aplikatzen da

$$OI_i \text{ haztatua} = OI_i \times HF.$$

OI guztiei pisu berbera eman nahi zaienean, haztatze faktorea $HF = 1$ izaten da.

3.3.- Arrisku Indizea eta Arrisku Kategoria.

Honela kalkulatu da AI arrisku indizea:

- «Erregela» bat ezartzen da. Erregela horrek zehazten du II zuzenduen gutxieneko puntuazio maximoen zenbatekoa. Euskadiren kasuan, Erregela = 2 ezarri da, alegia, puntuazio maximoen zenbatekoa 2 izango da.
- II edo inpaktu irizpideen puntuazioa (1 eta 5 artekoa, eskuarki) bakoitzarentzat zehaztutako ebaluazio sistemaren eta haztatze terminoen funtzioan kalkulatu da.
Euskadin haztatze terminoa = 0 dela erabaki da, beraz, inpaktu irizpide guztiek pisu hasierako berbera dute kalkuluen eraginetarako.
- Operatzaile irizpideen (OI) puntuazioa, -1 eta 1 artekoa (-1, 0 edo 1) edo (-1, -0,5, 0, 0,5 edo 1), aukeratutako irizpidearen arabera, dauden haztatze faktoreak kontuan hartuta kalkulatu da.
Euskadin haztatze faktorea = 1 dela erabaki da, beraz, inpaktu irizpide guztiek pisu hasierako berbera dute kalkuluen eraginetarako.
- II-en puntuazioak OI-en puntuazioekin zuzentzen dira (azken balioa maila bat igoko da, dagoen bezala utzi edo maila bat jaitsiko da).
- Emaizta gisa atera den maximoen zenbatekoa «Erregelari» erabakitakoa baino txikiagoa bada, maila bat jaitsiko da II-en multzoa. Maximoen zenbatekoa «Erregelarekin» bat badator edo gainditzen badu, II-en puntuazio zuzenduak daudenean utziko dira.
- Arrisku Indizea zeinahi inpaktu irizpideren puntuazio maximoaren balioa da, Erregela aplikatu ondoren. Metodologian, 5 motatako arrisku indizeak ezarri dira



- Arrisku Indizetik abiatuta (5 mota daude), aurrerago ikusiko dugun bezala, Arrisku Kategoria (3 kategoria) erabakitzen da, zeina ikuskapen maiztasunarekin lotzen baita zuzenean (urterokoa, bi urtetik behingoa edo hiru urtetik behingoa).

4. ARRISKUAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

4.1.- Inpaktu irizpideak

Arriskuen ebaluazioan ondorengo inpaktu irizpideok (II) hartzen dira aintzat.

4.1.1. Konplexutasuna

Jarduera baten konplexutasuna bere IPPC prozesuek sortzen dituzten arriskuak kontuan hartuta zehazten da. Horrela, IPPC prozesu bakoitzari arrisku banda bat izendatu zaio (ikus I. Eranskina).

Hona konplexutasuna kalkulatzeko formula

$$\text{Konplexutasuna} = \sum (P_i \times \text{banda}_i)$$

non P_i = IPPC prozesu bat eta

banda_i = prozesuari izendatu zaion bandaren balioa I. Eranskinaren arabera, ondorengo taula kontuan hartuta:

IPPC jardueraren banda	Puntuak
A	2
B	15
C	40
D	75
E	100

Irizpide honen azken kalkulua egiteko, honako arauak hartuko dira gogoan:

1. 5 jarduera nagusien batura hartuko da soilik kontuan.
2. Enpresak 50 Ha baino gehiagoko azalera baldin badu, maila bat erantsiko zaio banda okerrena duen prozesuari.

Behin arauak eta formula aplikatu ondoren, irizpide honen IRAM balioa ondorengo taularen bidez lortzen da

Konplexutasuna		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	5	1
>5	20	2
>20	50	3
>50	100	4
>100	9999	5



4.1.2 Kokapena

Kokapena kalkulatzeko, hainbat galdera egingo dira aurretik inguruko etxebizitzek, eremu babestuetara dagoen distantziaz, urpean gera daitezkeen eremuez, etab. Erantzun bakoitzari puntuazio bat dagokio eta puntu guztiak batzen dira.

Kokapenari buruzko galderak	
Galderaren kodea	
1	Giza okupazioa
2	Ingurune natural babestuak: Urdaibai, Txingudi, parke naturala (GIS)
3	Ingurune natural babestuak: GKL, HBBE, biotopoak (GIS)
4	Akuiferoen zaurgarritasuna (GIS)
5	Ur masen ezaugarritzea (GIS)
6	Isurketa azaleko uretara
7	Uholde lautada 100 urteko aldian (GIS)
8	Airearen kalitatea hobetzeko ekintza plana duen eskualde baten barruan dago (GIS)

Kokapenari buruzko galderen erantzunen puntuazioak.

Galderaren kodea	Erantzun-aukerak:	Erantzunaren balioa
1	50m baino gutxiago jardueraren mugatik	3
1	50m baino gehiago eta 250m baino gutxiago	2
1	250m baino gehiago eta km bat baino gutxiago	1
2	Bai	2
2	Ez	1
3	Bai	2
3	Ez	1
4	Aintzat hartzeko zaurgarritasun gabe. Zaurgarritasun oso apala	1
4	Zaurgarritasun apala edo ertaina	2
4	Zaurgarritasun handia edo oso handia	3
5	Eskasa	3
5	Txarra edo ertaina	2
5	Ona, oso ona, itsasadarra	1
6	Erregulazio-putzurik edo kontrolerako beste neurririk gabe	2
6	Kontrolerako neurri aktiboekin edo putzuekin	1
7	Bai	2
7	Ez	1
8	Bai	5
8	Ez	1



Inpaktu irizpide honen IRAM balioa kokapenari buruzko galdera guztien puntuazioen batura ondorengo taulari aplikatuta lortzen da:

KOKAPENA		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	10	1
>10	13	2
>13	16	3
>16	20	4
>20	9999	5

4.1.3. Isuriak

3 isuri mota bereizten dira: Airea, Ura eta Hondakinak.

Airea eta Ura kalkulatzeko, erreferentzia-balioak dituen taula bat erabiltzen da (ikus II. Eranskina)

4.1.3.1. Airea

Airera egiten diren isuriak kalkulatzeko, azkeneko urtean PRTR erregistroari enpresak aitortutako datuak baliatuko ditugu, ondorengo formula aplikatuta. Kutsatzaile bakoitzetik isuritako zamaren osoko balioa zati II. eranskineko erreferentzia-balioa

$$\sum \frac{\text{Conta min ante _ aire _ PRTR _ (Kg / año)}}{\text{Valor _ referencia _ conta min ante _ aire (Kg / año)}}$$

Airerako isurien irizpiderako IRAM balioa aurreko ekuazioaren emaitza gisa lortutako balioa ondorengo taulan aplikatzean lortzen da:

Airea		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	0,5	1
>0,5	25	2
>25	250	3
>250	1000	4
>1000	99999	5



4.3.1.2. Ura

Uretara egindako isuriak kalkulatzeko prozedura aurrekoaren antzekoa da:

$$\sum \frac{\text{Conta min ante Agua}_{PRTR} \text{ (Kg / año)}}{\text{Valor}_{referencia} \text{ _ conta min ante Agua (Kg / año)}}$$

Uretarako isurien irizpiderako IRAM balioa ondorengo taularen bitartez lortuko da

Ura		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	0,05	1
>0,05	0,5	2
>0,5	5	3
>5	100	4
>100	99999	5

4.3.1.3 Hondakinak:

Azken urteko PRTR erregistrora aitortutako datuetatik abiatuak, ondorengo formulak aplikatzen dira

Hondakin arriskutsuak H_a

$$H_a = \left(\frac{\sum RP}{K_p} \right) = \left(\frac{\sum RP}{10^4} \right) \text{ Kalkulu unitatea tonak dira (t)}$$

Hondakin arriskutsuak sortzearen irizpiderako IRAM balioa ondorengo taularen bitartez lortuko da



Hondakin arriskutsuak		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	0,0007	1
>0,0007	0,035	2
>0,035	0,7	3
>0,7	70	4
>70	99999	5

Hondakin ez-arriskutsuak Hea

$$H_{ea} = \left(\frac{\sum RNP}{Knp} \right) = \left(\frac{\sum RNP}{10^5} \right) \text{ Kalkulu unitatea tonak dira (t)}$$

Hondakin ez arriskutsuak sortzearen irizpiderako IRAM balioa ondorengo taularen bitartez lortuko da

Hondakin ez-arriskutsuak		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	0,0003	1
>0,0003	0,015	2
>0,015	0,3	3
>0,3	30	4
>30	99999	5

4.1.4. Istripua gertatzeko arriskua

Istripu arriskua jardueran biltegiratutako substantzien kantitatea eta arriskugarritasuna kontuan hartuta ebaluatzen da.

Horrela, IRAM balioa ondorengo taulako irizpideen bitartez zehazten da.



Istripua gertatzeko arriskua	IRAM balioa
Substantzia arriskutsurik ez biltegitatuta	1
APQ baimendu bat dauka, 1254/99 ED aplikatu gabe	2
Baimendu gabeko APQ bat dauka edota 2 edo APQ baimendu gehiago, 1254/99 ED aplikatu gabe	3
1254/99 ED aplikatzen zaio eta biltegitatutako kantitateak EDko I. Eranskinaren 1 eta 2 zatietako 2. zutabearen adierazitakoetan sartzen dira.	4
1254/99 ED aplikatzen zaio eta biltegitatutako kantitateak EDko I. Eranskinaren 1 eta 2 zatietako 3. zutabearen adierazitakoetan sartzen dira.	5

4.1.5. Gorabeherak eta kexak

Jarduerak sortutako gorabehera eta/edo kexa arriskuaren IRAM balioa ondorengo taularen arabera zehaztuko da

Gorabeherak eta kexak	IRAM balioa
Ez gorabeherarik eta ez kexarik	1
≤ 3 gorabehera edo kexa arin urtean	2
≤ 10 gorabehera edo kexa arin urtean edo gorabehera larri bat urtean	3
10 < gorabehera edo kexa arin urtean, ≤ 25 edo 1 < gorabehera larri urtean	4
> 25 gorabehera edo kexa arin urtean edo > 5 gorabehera larri urtean	5

OHARRA: Kudeaketan hala kontrastatu direnak soilik hartuko dira kexa edo gorabeheratzat

4.2.- Operatzaile irizpideak

4.2.1. Araudiaren betetze maila

Honela kalkulatu da araudiaren betetze maila:

Alde batetik, desbideratze-zerrenda bat dago, non ikuskapen batean hauteman daitezkeen desbideratze mota guztiak jaso baitira. Zerrenda horretako desbideratze bakoitzari arriskugarritasun bat lotu zaio, garrantziaren arabera, A, B, C edo D, zeinari desbideratzearen berezko sailkapena deitu baitzaio. (Ikus III. Eranskina)

Bestalde, ikuskapena egin den unean ikuskatzaileak desbideratze jakin batez egiten duen 1 eta 3 arteko balioespena dago, batik bat, enpresaren kokapenari, ondorioei, etab. lotua; desbideratzearen garrantzia esaten zaio. Balioespena honako irizpide hauen arabera egingo da:

Balioespena = 1

- Ez dago jardueraren esku desbideratzea konpontzea
- Jarduerak baldintzak aldatzeko eskatu dio organo eskudunari desbideratzea zuzentzeko eta erantzunaren zain dago; ez du ondoriorik ingurumeneari
- Ez dago ingurumen-ondoriorik

Balioespena = 2

- Ez da zuzendu aurreko ikuskapenean 1 balioespena jaso zuen desbideratzea.
- Jarduera eremu sentibera batean dago edo hautemandako desbideratzearekin zerikusia duen ingurumen arazoren bat izan da (adibidez, usain txarren kexak izan dira eta jarduerari atmosferara egindako isuriek lotura duen ez-betetze bat aurkitu zaió)
- Ez-betetzeak eragin ditzakeen ingurumen-ondorioak erdi mailakotzat jotzen dira

Balioespena = 3

- Ez da zuzendu aurreko ikuskapenean 2 balioespena jaso zuen desbideratzea
- Jarduera babes bereziko eremu batean dago edo desbideratzearekin zerikusia duen arazo zehatz eta jarraitua du
- Desbideratzeak eragin ditzakeen ingurumen-ondorioak larritzat jotzen dira

Bi balioespen horiek sarrera bikoitzeko matrize batean konbinaturik, desbideratze bakoitzaren azken balioa kalkulatzeko da ondorengo taula erabilita

Ikuskatzailearen balioespena	Desbideratzearen berezko sailkapena			
	A	B	C	D
1	1	3	5	10
2	3	5	10	25
3	5	10	25	50

Azken balioaren arabera (DAB), honela sailkatzen da desbideratze bakoitza:

Desbideratzearen azken balioa (DAB)	Desbideratzearen sailkapena
1-3-5	Garrantzi gutxikoa
10	Apala
25	Adierazgarria
50	Larria

Desbideratzeen multzoari aplikatuta, aurreko taulan bakoitzak lortutako balioa batzen zaió eta IRAM balioa lortzen da horrela, ondorengo taularen bitartez:



DABen batura		IRAM balioa
Puntu min	Puntu max	
0	6	-1
>6	12	-0,5
>12	24	0
>24	40	0,5
>40	9999	1

Ingurumen Baimen Integratuaren (IBI) betetze mailari dagozkion ondorioak

Jarduera batek bere IBlarekiko duen betetze mailaren ondorioa lortutako IRAM balioaren emaitzarekin lotzen da, ondorengo erlazioaren arabera:

IRAM balioa	Betetze maila
-1	Handia
-0,5	Ertaina-Handia
0	Ertaina
0,5	Ertaina-txikia
1	Txikia

4.2.2 Ingurumen-kudeaketa

Jarduera baten ingurumen-kudeaketari dagokion irizpidea ondorengo elementu hauen arabera kalkulatu da:

Ingurumenaren kudeaketa	IRAM balioa
EMAS ziurtagiria	-1
ISO 14000 ziurtagiria	-0,5
Puntuazioa > 40 puntu	0
20 < puntuazioa ≤ 40	0,5
0 < puntuazioa ≤ 20	1



Puntuazioa kalkulatzeko IV. Eranskineko galdeketako erantzun bakoitzaren batura egin behar da.

4.2.3. Operatzailearen jarrera

Irizpide honen IRAM balioespena ondorengo hauen arabera zehazten da:

Operatzailearen jarrera	IRAM balioa
Operatzailearen berehalako erreakzioa barneko zeinahi desbideratze edo gorabeheraren aurrean. Izandako gorabeheraren berri Ingurumen Organoari berehala ematea. Laguntza-jarrera ikuskapenetan	-1
Erreakzio proaktiboa ingurumen organotik eskaeraren bat edo deiren bat jaso ondoren. Jarrera neutroa ikuskapenetan	0
Erreakzio motela ingurumen organotik berariazko errekerimenduak jaso ondoren, eta esandako organoaren ekintzei oztopoak jartzea. Laguntza-jarrera falta ikuskapenetan	1

5. ARRISKUEN EBALUAZIOAREN AZKEN EMAITZA. ARRISKU INDIZEA ETA ARRISKU KATEGORIA

Aurreko taulen arabera, II eta OI irizpideak behin zehaztu direnean, ondorengo egintza hauek aplikatuko dira:

- Operatzailearen portaera zehaztuko da OI bakoitzean lortutako emaitzen batez besteko aritmetikoan oinarrituta, ondorengo adibidean adierazten den bezala.
- Lortutako emaitza -1, 0 eta 1 balioekin alderatu ondoren, hurbilenekoa hartzen da (adibidean emaitza -0,25 izan denez, hurbilen dagoen balioa 0 da)
- Operatzailearen portaerak lortutako balioaren arabera, hau da, -1, 0 edo 1, maila bat jaitsiko da, dagoen bezala utziko da, edo maila bat igoko zaio inpaktu irizpide bakoitzari.
- Aurreko paragrafoaren arabera zuzendutako inpaktu irizpideak aztertuko dira eta balio absolutu handienekoa hautatuko da (bat edo balio bereko hainbat izan daitezke). Hautatutako balio horri arrisku indizea deitzen zaio
- Erregela = 2 aplikatzen da, alegia, arrisku indizea (balio maximoa) duten inpaktu irizpideen zenbatekoa egiaztatu eta honela jokatuko da:
 - Irizpide zenbatekoa 1 baldin bada, II guztiak zuzenduko dira berriro, maila bat jaitsita.
 - Irizpide zenbatekoa 2 edo gehiago baldin bada, c) paragrafoaren arabera lortutako inpaktu irizpideen balioak bere horretan mantenduko dira



- f) Berriro inpaktu irizpideak egiaztatu eta Arriskuen Ebaluazioko azkeneko arrisku indizea zehazten da.
- g) Ondorengo taula aplikatzen da arrisku kategoria zehazteko, horrek baldintzatuko baitu ikuskapen maiztasuna

ARRISKU INDIZEA	ARRISKU KATEGORIA	IKUSKAPEN MAIZTASUNA
1	3	Hiru urtez behin
2	3	Hiru urtez behin
3	2	Bi urtez behin
4	1	Urtero
≥5	1	Urtero

EMAS ziurtagiriaren baldintza. Europar Erkidegoko ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritza sistemaren erregistroan (EMAS) izena emanda dauden erakundeen kasuan, Arriskuen Ebaluazioan lortzen duten emaitza lortzen dutela, automatikoki, 3ko arrisku kategoria emango zaie, hau da, hiru urtez behingo ikuskapen maiztasuna.

6. ARRISKUEN EBALUAZIO BAT ADIBIDE GISA

Ondorengo adibidean azaltzen da, urratsez urrats, zer metodologia jarraitu arriskuen ebaluazio bat IRAM metodoaren arabera kalkulatzeko.

Irudika dezagun jarduera bat non, aurreko puntuetan ezarritako formulak eta irizpideak aplikatuta, inpaktu- eta operatzaile-irizpide bakoitzaren IRAM balioak lortu diren

Inpaktu irizpideak:	IRAM balioa
Konplexutasuna:	4
Kokapena:	4
Isuriak airera:	4
Isuriak uretara:	3
Hondakinen isuriak:	3
Istripua gertatzeko arriskua:	5
Gorabeherak eta kexak:	4



Ingurumenaren kudeaketari bi halako pisua eman nahi badiogu gainerako operatzaile irizpideen aldean, kontuan hartu den operatzaile irizpideen haztatze faktorea ondorengo hau da:

- Betetze mailaren HF: 1
- Ingurumen-kudeaketaren HF: 2
- Operatzailearen jarreraren HF: 1

Operatzaile irizpideak:	IRAM balioa
Betetze maila:	0
Ingurumen-kudeaketa:	0
Operatzailearen jarrera:	-1

Beraz, lortu den operatzailearen portaera honako hau izango da:

$$OI_E = (0 \times 1) + (0 \times 2) + (-1 \times 1) / (1 + 2 + 1) = -1/4 = -0,25$$

Balio honek -1, 0 edo 1 izan behar duenez, -0,25en hurbileneko balioa aplikatu da, 0 alegia.

Horrek esan nahi du inpaktu irizpideak hasieran kalkulaturako balioarekin geratzen direla. 1 atara izan balitz, unitate bat gehituko zitzaion inpaktu irizpide bakoitzaren IRAM balioari, eta -1 atara izan balitz, berriz, unitate bat kenduko zitzaion esandako balioari.

Orain, erregela = 2 aplikatuta, ohartuko gara inpaktu irizpideen puntuazio maximoa istripu-arriskua irizpideari dagokiola, eta bere IRAM balioa = 5 dela. Baina nola 5eko balio maximo bakarria dagoen eta erregelak 2 balio maximo baimentzen dituen, maila bat jaitsi beharra daukagu inpaktu irizpide bakoitzaren emaitza. 2 balio maximo edo gehiago egon balira, II bakoitzaren IRAM balioa mantendu egingo zen

Hortaz, inpaktu irizpideak honela geratuko lirateke zuzenduta:

Inpaktu irizpideak:	IRAM balioa Erregela aplikatu aurretik	IRAM balioa Erregela aplikatu ondoren
Konplexutasuna:	4	3
Kokapena:	4	3
Isuriak airera:	4	3
Isuriak uretara:	3	2
Hondakinen isuriak:	3	2
Istripua gertatzeko arriskua:	5	4
Gorabeherak eta kexak:	4	3



Emaitza honek adierazten du arrisku indizea, IRAM balio handieneko inpaktu irizpideari dagokiona, 4 dela

Beraz, arrisku kategoria kalkulatzeko taula kontsultatzen badugu, ohartuko gara AI = 4ri dagokion arrisku kategoria = 1 dela, eta urteroko ikuskapen maiztasuna dagokiola.

7. ARRISKUEN EBALUAZIORAKO APLIKAZIO INFORMATIKOA

Aurrez adierazi den bezala, Ingurumen Sailburuordetzak, bere garaian, aplikazio informatiko bat prestatu zuen OPRA metodologia Ikuskapen Zerbitzuaren lan sistematikara egokitzeko, eta lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen horretarako Sailburuordetzaren eta UK Environment Agencyren artean.

Gaur egun, IRAM metodologia, prozedura horretako irizpide guztiak barne dituela, ingurumen-ikuskapenerako aplikazio informatiko batean txertaturik dago eta, irizpideak ebaluatzeko behar den informazio guztia biltzeaz gainera, behar diren kalkulu guztiak egiten ditu.

8. ERANSKINAK

- I. Eranskina: IPPC jardueren banda izendapena
- II. Eranskina: Aireko eta uretako kutsatzaileen erreferentzia-balioak
- III. Eranskina: Ez-betetzeen zerrenda eta berezko sailkapena
- IV. Eranskina: Ingurumen-kudeaketarako galdeketa



I. ERANSKINA BANDA IZENDAPENA KONPLEXUTASUN IRIZPIDEAN

16/2002 LEGEKO JARDUERAK		balioa OPRA	IRAM balioa
1.	1. ERREKUNTZA INSTALAZIOAK		
1.1	Errekuntza-instalazioak		
1.1.a	Energia elektrikoa sortzeko instalazioak, erregimen arruntekoak zein berezikoak, erregai fosilak, hondakinak edo biomasa erabiltzen dituztenak:	D	4
1.1.b	Elektrizitatea eta beroa sortzeko baterako instalazioak, galdarak, lurren-sorgailuak eta industrietako era guztietako errekontza-ekipamendu edo -instalazioak, hori jarduera nagusia izan zein ez:	C	3
1.2	Petrolio eta gas fintzeak		
1.2.a	Petrolio edo petrolio gordina fintzeko instalazioak	E	5
1.2.b	Gas naturala ez beste gas erregai bat eta petroliotik eratorritako gas likuatuak ekoizteko instalazioak	E	5
1.3	Koke-fabrikak	E	5
1.4	Gasifikatzeko eta likidotzeko instalazioak:		
1.4.a	Ikatza	E	5
1.4.b	Bestelako erregaiak, instalazioak 20 MW-eko edo hortik gorako potentzia termiko nominala duenean	E	5
2.	2. METALEN EKOIZPENA ETA ERALDAKETA		
2.1	Mineral metalikoak (sulfurosoak barne) kiskaltzeko edo sinterizatzeko instalazioak.	E	5
2.2	Altzairu gordinak urtzeko instalazioak (lehen edo bigarren mailako urtzea), etengabeko urtze-instalazioak barne, orduko 2,5 tona baino gehiago ekoizten dituztenak.	E	5
2.3	Metal ferrosoak eraldatzeko instalazioak		
2.3.a	Berotan ijaztekoak, orduan 20tik gora tona altzairu gordin ekoiztu ahal dituztenak.	C	3
2.3.b	Mailu bidezko forjaketa, talka-energia 50etik gora kilojulio mailuko dela eta potentzia termikoa 20tik gora MW dela.	C	3
2.3.c	Metal urtuzko babes-geruzak aplikatzea, tratamendu-ahala orduan 2 tona altzairu gordin baino gehiago denean.	D	4
2.4	Metal ferrosoen fundizioak, egunean 20 tona baino gehiago ekoiztu ahal dituztenak.	C	3
2.5	Instalazioak		



2.5.a	Mineralak, kontzentratuak edo bigarren mailako lehengaiak oinarri hartuta prozedura metalurgiko, kimiko edo elektrolitiko bidez metal ez-ferrosoak gordinen ekoizteko erabiltzen direnak	B	2
2.5.b	Metal ez-ferrosoak, are aleazioak ere, urtzeko erabiltzen direnak, eta berreskuratzen diren produktuak eta beste prozesu batzuk urtze-ahalmen honekin: 4 tona berun edo kadmio baino gehiago egunean eta 20 tona baino gehiago gainerako metal guztietan.	C	3
2.6	Metalen eta plastikoen gainazala prozedura elektrolitiko edo kimiko tratatzeko instalazioak, tratamenduko kubeten edo lerroen bolumena 30 m ³ baino gehiago denean.	C	3
3.	3. MINERALEN INDUSTRIAK		
3.1	Zementuaren, karearen eta magnesio-oxidoaren ekoizpena		
3.1.a	Zementua ehotze bidez ekoiztea eguneko 500 tonatik gorako ekoizpen-gaitasunarekin.	D	4
3.1.b	Karea labeetan ekoiztea eguneko 50 tonatik gorako ekoizte-gaitasunarekin:	D	4
3.1.c	Magnesio-oxidoa labeetan ekoiztea egunean 50 tona baino gehiago ekoizteko gaitasunarekin	C	3
3.2	EDUKIRIK GABE	C	3
3.3	Beira (are beira-zuntza ere) fabrikatzeko instalazioak, egunean 20 tona baino gehiago urtu ahal dituztenak.	D	4
3.4	Mineralak urtzeko instalazioak, mineral-zuntzak fabrikatzekoak barne, egunean 20 tona baino gehiago urtu ahal dituztenak	C	3
3.5	Zeramikazko produktuak (teilak, adreiluak, gai erregogorak, azulejuak, gres zeramikoa edo apaingaiak edo etxeko produktuak) fabrikatzeko instalazioak, egunean 75 tona baino gehiago ekoiztu ahal dituztenak edota labekada batean 4 m ³ baino gehiago hartzen dituztenak eta labeko zama-dentsitatea 300 kg/m ³ baino gehiagokoa dutenak.	B	2
4.	4. INDUSTRIA KIMIKOAK		
4.1	Produktu kimiko organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak, bereziki:		
4.1.a	Hidrokarbuero soilak (linealak edo ziklikoak, saturatuak eta ez-saturatuak, alifatikoak edo aromatikokoak)	C	3
4.1.b	Hidrokarbuero oxigenatuak, esaterako: alkoholak, aldehidoak, zetonak, azido organikoak, esterrak, eta esterren, azetatoen, eterren, peroxidoen eta epoxi erretxinen nahasketak.	C	3
4.1.c	Hidrokarbuero sulfuruak.	C	3
4.1.d	Hidrokarbuero nitrogenatuak: aminak, amidak, konposatu nitrosoak, nitrikoak edo nitratoak, nitriloak, zianatoak eta isozianatoak	C	3
4.1.e	Hidrokarbuero fosforatuak.	C	3
4.1.f	Hidrokarbuero halogenatuak	C	3



4.1.g	Konposatu organiko metalikoak.	C	3
4.1.h	Gai plastikoak (polimeroak, zuntz sintetikoak, zelulosazko zuntzak)	C	3
4.1.i	Kautxu sintetikoak.	C	3
4.1.j	Koloregaiak eta pigmentuak.	C	3
4.1.k	Tentsioaktiboak eta gainazaleko agenteak.	C	3
4.2	Produktu kimiko ez-organikoak fabrikatzeko instalazio kimikoak, esaterako:		
4.2.a	Gasak, batez ere amoniakoa, kloroa edo hidrogeno kloruroa, fluorra edo hidrogeno fluoruroa, karbono oxidoak, sulfre konposatuak, nitrogeno oxidoak, hidrogenoa, sulfre dioxidoa eta karbonilo dikloruroa.	E	5
4.2.b	Azidoak, batez ere azido kromikoa, azido fluorhidrikoa, azido fosforikoa, azido nitrikoa, azido klorhidrikoa, azido sulfurikoa, azido sulfuriko ketsua eta azido sulfuratuak.	D	4
4.2.c	Baseak, batez ere amonio hidroxidoa, potasio hidroxidoa eta hidroxido sodikoa	D	4
4.2.d	Gatzak, esate baterako amonio kloruroa, klorato potasikoa, karbonato potasikoa (potasa), karbonato sodikoa (soda), perboratoak eta nitrato argentikoa	C	3
4.2.e	Ez-metalak, oxido metalikoak edo beste konposatu ez-organiko batzuk; esaterako, kaltzio karburoa, silizioa eta silizio karburoa.	B	2
4.3	Fosforoa, nitrogenoa edo potasioa oinarri duten ongarriak (ongarri soilak edo konposatuak) fabrikatzeko instalazio kimikoak.	D	4
4.4	Produktu fitosanitarioak edo biozidak fabrikatzeko instalazio kimikoak.	C	3
4.5	Botikak (bitarteko produktuak barne) ekoizteko prozedura kimiko edo biologiko bat erabiltzen duten instalazio kimikoak	C	3
4.6	Leherkariak fabrikatzeko instalazio kimikoak	C	3
5.	5. HONDAKINEN KUDEAKETA		
5.1	Hondakin arriskutsuak balioztatzeko edo deuseztatzeko instalazioak, eguneko 10 tonatik gorako gaitasuna dutenak eta, gutxienez, hauetako jarduera bat gauzatzen dutenak		
5.1.a	Tratamendu biologikoa.	D	4
5.1.b	Tratamendu fisiko-kimikoa.	D	4
5.1.c	5.1. eta 5.2. paragrafoetan aipaturiko eragiketen konbinazioa edo aurretiazko nahasketa.	D	4
5.1.d	5.1. eta 5.2. paragrafoetan aipaturiko edozein eragiketaren aurreko berrontziratzea.	D	4
5.1.e	Disolbagarriak berreskuratu edo birsortzea.	D	4
5.1.f	Metalak edo konposatu metalikoak ez diren materia ez-organikoak birziklatzea edo berreskuratzea.	C	3
5.1.g	Azidoak edo baseak berroneratzea.	E	5



5.1.h	Kutsadura murrizteko erabilitako osagaiak balioztatzea.	C	3
5.1.i	Katalizatzaileetatik eratorritako osagaiak balioztatzea	B	2
5.1.j	Olioak berroneratzea edo berrerabiltzea.	D	4
5.1.k	Lurrazaleko urtegiak (esate baterako, hondakin likidoak putzuetara, urmael edo aintziretara, etab. isurtzea).	C	3
5.2	Hondakinak balioztatzeko edo deuseztatzeko instalazioak hondakinen errausketa edo baterako errausketa instalazioetan		
5.2.a	Hondakin ez-arriskutsuetarako, orduko 3 tonatik gorako gaitasunarekin.	E	5
5.2.b	Hondakin arriskutsuetarako, eguneko 10 tonatik gorako gaitasunarekin.	E	5
5.3	Arriskutsuak ez diren hondakinak ezabatzeko instalazioak, eguneko 50 tonatik gorako gaitasuna dutenak, baldin eta jarraian zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago biltzen badituzte, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan bildutakoak izan ezik:		
5.3.a	Tratamendu biologikoa.	C	3
5.3.b	Tratamendu fisiko-kimikoa.	B	2
5.3.c	Errausketaren edo baterako errausketaren aurreko tratamendua.	B	2
5.3.d	Zepa eta errausen tratamendua.	C	3
5.3.e	Tratamendua hondakin metalikoen birringailuetan, hondakin elektrikoak eta elektronikoak, eta balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta beren osagarriak barne	B	2
5.4	Hondakin ez-arriskutsuak balioztatzeko edo balioztatu eta ezabatzeko instalazioak eguneko 75 tonatik gorako gaitasunarekin, baldin eta jarraian zerrendatuko diren jardueretako bat edo gehiago biltzen badituzte, hiriko hondakin-uren tratamenduari aplikagarri zaizkion arauak ezartzen dituen abenduaren 28ko 11/1995 Errege Lege Dekretuan bildutakoak izan ezik. Instalazioan egiten den hondakinak tratatzeko jarduera bakarra digestio anaerobikoa denean, jarduera horren gaitasun-atalasea eguneko 100 tonakoa izango da.		
5.4.a	Tratamendu biologikoa.	C	3
5.4.b	Errausketaren edo baterako errausketaren aurreko tratamendua	B	2
5.4.c	Zepa eta errausen tratamendua.	C	3
5.4.d	Tratamendua hondakin metalikoen birringailuetan, hondakin elektrikoak eta elektronikoak, eta balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta beren osagarriak barne	B	2
5.5	Mota guztietako hondakinak biltzen diren hondakindegia, egunean 10 tona baino gehiago jasotzen dituztenak edo guztirako edukiera 25.000tik gora tonakoa dutenak, gai inerteen hondakindegia salbu.	D	4



5.6	5.5. paragrafoan bildu ez diren hondakin arriskutsuak aldi baterako biltegitratzea, 5.1., 5.2., 5.5. eta 5.7. paragrafoetan adierazitako tratamenduetako bat aplikatu arte, 50 tonatik gorako edukierarekin, jasotzeko zain dagoen bitartean sortu den lekuan bertan aldi baterako biltegitratzea alde batera utzita.	C	3
5.7	Hondakin arriskutsuak lurpean biltegitratzea, 50 tonatik gorako edukierarekin.	C	3
6.	6. ZURETIK ERATORRITAKO INDUSTRIA		
6.1	Ondoko hauek fabrikatzeko instalazio industrialak:		
6.1.a	Paper-orea, zura edo zuntzeko beste materia batzuk lehengai hartuta.	E	5
6.1.b	Papera edo kartoia, egunean 20 tona baino gehiago ekoizteko gaitasunarekin.	C	3
6.2	Zelulosa ekoizteko instalazioak, egunean 20 tona baino gehiago ekoizteko gaitasunarekin.	C	3
6.3	Zuretik eratorritako ondorengo taula motaren bat edo gehiago –zurezko txirbil orientatuz egindako taulak, taula aglomeratuak, edo kartoi prentsatur egindakoak– fabrikatzea xede duten instalazio industrialak, egunean 600 m3tik gora ekoizteko ahalmena dutenak.	D	4
7.	7. EHUNGINTZA.		
7.1	Ehungintzako zuntzak edo produktuak aldeztu aurretik tratatzeko (ikuzi, zuritu, mertzerizatu) edo tindatzeko instalazioak, egunean 10 tona baino gehiago trata ditzaketenak.	B	2
8.	8. LARRUAREN INDUSTRIA.		
8.1	Larruak zurratzeko instalazioak, egunean 12 tona produktu baino gehiago tratatu eta amaitutzat jo ahal badira.	B	2
9.	9. NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO ELIKAGAI INDUSTRIAK		
9.1			
9.1.a	Hiltegiak, egunean 50 tona okela baino gehiago, kanalean, ekoiztu ahal dituztenak.	A	1
9.1.b	Elikagaiak edo pentsuak fabrikatzea xede duten honako lehengai hauen –aurrez tratatuak edo tratatu gabeak izan daitezke– tratamendua eta eraldaketa (ontziratze hutsa izan ezik)	C+B+C	3+2+3
9.1.c	Esnea bakarrik tratatzeko eta eraldatzeko instalazioak, egunean 200 tona baino gehiago (urteko batez bestekoa) hartzen dituztenak.	B	2
9.2	Animalien hondakinak ezabatzeko edo aprobetxatzeko instalazioak, egunean 10 tona baino gehiago tratatu ahal dituztenak.	A	1
9.3	Hegaztizaintza edo txerri-hazkuntza intentsiborako instalazioak, baldintza hauek betetzen dituztenak:		
9.3.a	40.000 oilo errulerentzako kokaguneak edo horren baliokide den nitrogeno-iraizkina, beste etxeko hegazti batzuen kasuan.	A	1
9.3.b	2.000 kokagune 30 kg-tik gorako gizentzeko txerrientzat.	A	1



9.3.c	750 kokagune umetarako txerramentzat.	A	1
10.	10. DISOLBATZAILE ORGANIKOEN KONTSUMOA		
10.1	Materialen, objektuen edo produktuen gainazalak disolbatzaile organikoak erabilia tratatzeko instalazioak, batez ere haiek prestatzeko, estanpatzeko, gainjanzteko eta koipegabetzeko, iragazgaizteko, itsasteko, lakatzeko, garbitzeko edo blaitzeko; disolbatzaile organikoaren kontsumo-ahalmena orduko 150 kg.tik gorakoa edo urtean 200 tona baino gehiagokoa baldin bada.	D	4
11.	11. KARBONOAREN INDUSTRIA		
11.1	Karbono sinterizatua edo elektrografitua errekuntzaz edo grafitazioz fabrikatzeko instalazioak	D	4
12.	12. ZURA KONTSERBATZEKO INDUSTRIA		
12.1	Zura eta zuretik eratorritako produktuak kontserbatzea produktu kimikoak erabilia, eguneko 75 m ³ -tik gorako ekoizpen gaitasunarekin, zurgizenari kontra egitea beste xederik ez duten tratamenduak alde batera utzita	D	4
13.	13. UREN TRATAMENDUA		
13.1	Hondakin-uren tratamendu independentea, hiriko hondakin-uren legediak aurreikusten ez duena, eta eranskin honetan jasotako instalazio batek isuritakoak:	C	3
14.	14. CO2-A ATZITZEA		
14.1	Eranskin honetan jasotako instalazioetatik eratorritako CO ₂ fluxuak atzitzea, biltegitratze geologikoa xede dutela, karbono-dioxidoaren biltegitratze geologikoari buruzko abenduaren 29ko 40/2010 Legeari jarraiki.	C	3



II. ERANSKINA Aireko eta Uretako kutsatzaileen erreferentzia-balioen taula

URETAKO-AIREKO ISURIAK				
Kodea	Taldea	Substantziaren izena	Erreferentzia-balioa	Unitateak
1	Airea	Sufre oxidoak (SOX), Oxido sulfurosoa (SO2)	150000	kg/urte
2	Airea	Nitrogeno oxidoak NOX	100000	kg/urte
3	Airea	Karbono monoxidoa (CO)	500000	kg/urte
4	Airea	Berilioa (Be)	1	kg/urte
5	Airea	Kadmioa	10	kg/urte
6	Airea	Beruna	200	kg/urte
7	Airea	Merkurioa	10	kg/urte
8	Airea	Antimonioa	10	kg/urte
9	Airea	Artsenikoa (As)	20	kg/urte
10	Airea	Kromoa, Cr Hexabalentea cr(iv)	100	kg/urte
11	Airea	Nikela	50	kg/urte
12	Airea	Selenioa	10	kg/urte
13	Airea	Burdina	100	kg/urte
14	Airea	Manganesoa	100	kg/urte
15	Airea	Aluminioa	100	kg/urte
16	Airea	PCDD eta PCDF dioxinak eta furanoak	0,001	mgTEQ/urte
17	Airea	PKBak	0,1	mgTEF/urte
18	Airea	H Arom Poliziklikoak (HAP), Benzo(a)pirenoa, Antrazenoa	50	kg/urte
19	Airea	Fosgenoa	1	kg/urte
20	Airea	Isozianatoak	1	kg/urte
21	Airea	Di-etil sulfatoa	1	kg/urte
22	Airea	Di-metil sulfatoa	1	kg/urte
23	Airea	Akronitriloa	10	kg/urte
24	Airea	Anilina	10	kg/urte
25	Airea	Bentzenoa	1000	kg/urte
26	Airea	Bentzil kloruroa	10	kg/urte
27	Airea	1-kloroa-2,3-epoxipropanoa	10	kg/urte
28	Airea	Kloroformoa	10	kg/urte
29	Airea	Zianamida	10	kg/urte



30	Airea	Etilen oxidoa	10	kg/urte
31	Airea	Formaldehidoa, HCOH	10	kg/urte
32	Airea	Anhidrido maleikoa	10	kg/urte
33	Airea	Nitrobentzenoa	10	kg/urte
34	Airea	Alilo alkohola	10	kg/urte
35	Airea	Azetaldehidoa	100	kg/urte
36	Airea	Azetonitriloa	100	kg/urte
37	Airea	Azido 1,2,4 trikarboxilikoa, bentzeno,1,2-anhidrido	100	kg/urte
38	Airea	1,3-Butadienoa	100	kg/urte
39	Airea	Kloroetenoa	100	kg/urte
40	Airea	Dikloroetanoa1,2	1000	kg/urte
41	Airea	Dimetilformamida	100	kg/urte
42	Airea	1,4-Dioxanoa	100	kg/urte
43	Airea	2-etioxietanola	100	kg/urte
44	Airea	2-etioxietilazetatoa	100	kg/urte
45	Airea	Etil akrilatoa	100	kg/urte
46	Airea	Iodometanoa	100	kg/urte
47	Airea	Metilamina	100	kg/urte
48	Airea	2-Nitropropanoa	100	kg/urte
49	Airea	Fenola	100	kg/urte
50	Airea	Propileno oxidoa	100	kg/urte
51	Airea	HFCak (Hidrofluorokarburoak)	100	kg/urte
52	Airea	HCFCak (Hidroklorofluorokarburoak)	100	kg/urte
53	Airea	PFCak (Perfluorokarburoak)	100	kg/urte
54	Airea	Bentzaldehidoa	500	kg/urte
55	Airea	Benzo(a)pirenoa	500	kg/urte
56	Airea	Butenoa	500	kg/urte
57	Airea	Klorometanoa	500	kg/urte
58	Airea	1,4-Diklorobentzenoa	500	kg/urte
59	Airea	Diklorometanoa	1000	kg/urte
60	Airea	Etil toluenoa	500	kg/urte
61	Airea	Etileno	500	kg/urte
62	Airea	i-butiraldehidoa	500	kg/urte
63	Airea	Metilo bromuroa	500	kg/urte
64	Airea	Pentenoa	500	kg/urte
65	Airea	Propenoa	500	kg/urte
66	Airea	Estirenoa	500	kg/urte
67	Airea	Tetrakloroetanoa.	100	kg/urte
68	Airea	Tetrakloroetanoa/Tetrakloroetilenoa/Perkloroetilenoa	2000	kg/urte



69	Airea	Toluen diamina	500	kg/urte
70	Airea	1,1,1-Trikloroetanoa	100	kg/urte
71	Airea	Trikloroetilenoa	2000	kg/urte
72	Airea	Triklorotoluenoa	500	kg/urte
73	Airea	Trimetilbentzenoa	500	kg/urte
74	Airea	Xilenoa	500	kg/urte
75	Airea	KOHak, COVNM, Konp org ez-metanikoak, Karbono Org totala	1000	kg/urte
76	Airea	Fluoruroa	10	kg/urte
77	Airea	Kloruroa	10	kg/urte
78	Airea	Bromuroa	10	kg/urte
79	Airea	Ioduroa	10	kg/urte
80	Airea	Fluorra eta konposatuak Fluoruro hidrogenoan, HF AFNIO	5000	kg/urte
81	Airea	Bromoa eta hidrogeno-bromuro konposatuak	10	kg/urte
82	Airea	Iodoa eta hidrogeno-ioduro konposatuak	10	kg/urte
83	Airea	Kloro eta hidrogeno-kloruro konposatuak	10000	kg/urte
84	Airea	Hidrogeno sulfuroa (azido sulfhidrikoa)	10	kg/urte
85	Airea	Amoniakoa, amonioa	100	kg/urte
86	Airea	Karbono disulfuroa	100	kg/urte
87	Airea	Partikulak, PM10, Partikula solido inerteak	50000	kg/urte
88	Airea	N2O (Oxido nitrosoa)	10000	kg/urte
89	Airea	NH3 (Amoniakoa)	10000	kg/urte
90	Airea	Kobrea (Cu) eta bere konposatuak	100	kg/urte
91	Airea	Zinka (Zn) eta bere konposatuak	200	kg/urte
92	Airea	NMOV	100000	kg/urte
93	Airea	PFC (perfluorkarbonatoak)	100	kg/urte
94	Airea	SF6 (sufre hexafluoruroa)	50	kg/urte
95	Airea	Metanoa (CH4)	100000	kg/urte
96	Airea	Karbono dioxidoa (CO2)	100000000	kg/urte
97	Airea	Oxido nitrosoa (N2O)	10000	kg/urte
98	Airea	Sufre hexafluoruroa	50	kg/urte
99	Airea	Hexaklorobentzenoa	10	kg/urte
100	Airea	Pentaklorofenola	10	kg/urte
101	Airea	Tetraklorometanoa	100	kg/urte
102	Airea	Triklorobentzenoa	10	kg/urte
103	Airea	Triklorometanoa	500	kg/urte
104	Airea	Hidrogeno zianuroa (HCN), Azido zianhidrikoa	200	kg/urte
105	Airea	SO2	150000	kg/urte
106	Airea	Hexakloroziklohexanoa (HCH)	10	kg/urte



107	Airea	PAH eta HAK, Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	50	kg/urte
108	Ura	Aldrina	0,001	kg/urte
109	Ura	Etil azinfoak	0,001	kg/urte
110	Ura	DDT isomero guztiak	0,001	kg/urte
111	Ura	Endosulfana	0,001	kg/urte
112	Ura	Endrina	0,001	kg/urte
113	Ura	Fenitrotiona	0,001	kg/urte
114	Ura	Fentiona	0,001	kg/urte
115	Ura	Isodrina	0,001	kg/urte
116	Ura	Malationa	0,001	kg/urte
117	Ura	Parationa	0,001	kg/urte
118	Ura	Metil azinfoak	0,01	kg/urte
119	Ura	Klorfenbinfoak	0,01	kg/urte
120	Ura	Diazinona	0,01	kg/urte
121	Ura	Dieldrina	0,01	kg/urte
122	Ura	Hexaklorobentzenoa	1	kg/urte
123	Ura	Hexakloroziklohexanoak	1	kg/urte
124	Ura	Hexaklorobutadienoa	1	kg/urte
125	Ura	Mebinfoak	0,01	kg/urte
126	Ura	Omeotatoa	0,01	kg/urte
127	Ura	Metil parationa	0,01	kg/urte
128	Ura	Permetrina	0,01	kg/urte
129	Ura	PKBak	0,01	kg/urte
130	Ura	Triazofuak	0,01	kg/urte
131	Ura	Tibultin konposatuak	0,01	kg/urte
132	Ura	Trifluralina	0,01	kg/urte
133	Ura	Trifeniltin konposatuak	0,01	kg/urte
134	Ura	Atrazina	0,1	kg/urte
135	Ura	Pentaklorofenola eta bere konposatuak	0,1	kg/urte
136	Ura	Simazina	0,1	kg/urte
137	Ura	Triklorobentzenoa eta bere isomeroak	0,1	kg/urte
138	Ura	Bentazona	1	kg/urte
139	Ura	Bifenila	1	kg/urte
140	Ura	Karbono tetrakloruroa	1	kg/urte
141	Ura	Kloroformoa, CL4C	1	kg/urte
142	Ura	Kloronitrotoluenoak	1	kg/urte
143	Ura	4-Kloroa-3-Metilfenola	1	kg/urte
144	Ura	2-Klorofenola	1	kg/urte
145	Ura	2,4 D ez-ester	1	kg/urte



146	Ura	2,4 D ester	1	kg/urte
147	Ura	Demetona	1	kg/urte
148	Ura	1,2-0 (DCE)	10	kg/urte
149	Ura	Dimethoatoa	1	kg/urte
150	Ura	Linurona	1	kg/urte
151	Ura	Mekopropa	1	kg/urte
152	Ura	Naftalenoa	1	kg/urte
153	Ura	Tetrakloroetilenoa	1	kg/urte
154	Ura	1,1,1-Trikloroetanoa	1	kg/urte
155	Ura	1,1,2-Trikloroetanoa	1	kg/urte
156	Ura	Kadmioa	5	kg/urte
157	Ura	Merkurioa	1	kg/urte
158	Ura	Nonilfenol etoxilatoa	20	kg/urte
159	Ura	Nonilfenolak	20	kg/urte
160	Ura	Oktilfenolak	20	kg/urte
161	Ura	Toluenoa	200	kg/urte
162	Ura	Trikloroetilenoa	20	kg/urte
163	Ura	Xilenoak	20	kg/urte
164	Ura	Artsenikoa (As)	5	kg/urte
165	Ura	Kromoa	50	kg/urte
166	Ura	Kobrea	50	kg/urte
167	Ura	Beruna	20	kg/urte
168	Ura	Nikela	20	kg/urte
169	Ura	Zinka	100	kg/urte
170	Ura	Oxigeno eskaera kimikoa (OEK)	10000	kg/urte
176	Ura	Nitrogenoa guztira (N)	50000	kg/urte
177	Ura	Fosforoa guztira (P)	5000	kg/urte
178	Ura	Diklorometanoa	10	kg/urte
179	Ura	Kloroalkanoak (C10-C13)	1	kg/urte
180	Ura	Konposatu organohalogenatuak (AOX)	1000	kg/urte
181	Ura	Bentzenoa, toluenoa, etilbentzenoa, xilenoa (BTEX)	200	kg/urte
182	Ura	Difeneileter bromatuak	1	kg/urte
183	Ura	Konposatu organoestannikoak (Sn-ak guztira)	50	kg/urte
184	Ura	PAH eta HAK, Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak	5	kg/urte
185	Ura	Fenolak (C-ak guztira)	20	kg/urte
186	Ura	Karbono Organikoa Guztira KOG (C)	50000	kg/urte
187	Ura	Kloruroak (Cl-ak guztira) (HCL)	2000000	kg/urte
188	Ura	Zianuroak (CN-ak guztira)	50	kg/urte
189	Ura	Fluoruroak (F-ak guztira)	2000	kg/urte



190	Ura	OEB5 Oxigeno Eskaera Biokimikoa	5000	kg/urte
191	Ura	Sulfato disolbatuak	2000	kg/urte
192	Ura	Nitrogeno nitrikoa	40000	kg/urte
193	Ura	Nitratoak	150000	kg/urte
194	Ura	Nitrogeno amoniakala	500	kg/urte
195	Ura	Solidoak guztira, solido eskegiak, solido jalkikorrak.	1000	kg/urte
197	Ura	Olioak eta koipeak, olio mineralak	50000	kg/urte
199	Ura	Amonioa, NH ₃ , Amoniakoa, NH ₃ oldarkorra	500	kg/urte
202	Ura	Nitritoak	500	kg/urte
206	Ura	Aluminioa	2000	kg/urte
208	Ura	Etilbentzenoa	200	kg/urte
209	Ura	Burdina (Fe)	2000	kg/urte
210	Ura	Detergenteak	20	kg/urte
211	Ura	Eztainua (Sn)	200	kg/urte
212	Ura	Fosfatoak	15000	kg/urte
213	Ura	Sulfuroak	500	kg/urte
214	Ura	Manganesoa (Mn)	200	kg/urte
215	Airea	Konposatu organoestannikoak (Sn-ak guztira)	200	kg/urte
217	Ura	P elementala eta ez-organikoa	5000	kg/urte
218	Ura	DHEP gehigarri plastifikatzaileak	200	kg/urte
221	Ura	Metanoa (CH ₄)	100000	kg/urte
222	Ura	Zilarra (Ag)	200	kg/urte
225	Ura	Antrazenoa	0,5	kg/urte
226	Ura	KOHak, konposatu organiko hegazkorrak	200	kg/urte
227	Ura	Konposatu halogenatuak	200	kg/urte
228	Ura	Molibdenoa (Mo)	100	kg/urte
229	Ura	Barioa (Ba)	200	kg/urte
230	Ura	Berilioa (Be)	200	kg/urte
231	Ura	Perkloroetilenoa	20	kg/urte
999	Ura	Ezezaguna	0	kg/urte

Zenbait balio, erreferentzia-baliorik ez dutenez, kalkuluetatik kanpo geratzen dira.



III. ERANSKINA DESBIDERATZE ZERRENDA

KODIFIKAZIOA

1 ADMINISTRAZIO-DATUAK ETA OROKORRAK

DESBIDERATZEAK				A	B	C	D
1	1		ADMINISTRAZIO-DATUAK ETA OROKORRAK				
1	1	1	Ez zaio administrazioari jakinarazi ondorengo administrazio-datu honen/hauen aldaketa: izen soziala, IFK, administrazioarekiko solaskidea, etab. (zehaztu)	x			
1	1	2	Ez da egiaztatu Baimen Integratuaren (BI) ebazpeneko XXXX erreferentzia duen baldintza bete izana, XXXX-i (zehaztu) dagokionez		x		
1	1	3	Ikuskatu beharreko enpresak edo erakundeak ez du erraztu administrazioaren ikuskapen-lana			x	
1	1	99	Bestelakoak (zehaztu)		x		

2 LIZENTZIAK ETA BAIMENAK

DESBIDERATZEAK				A	B	C	D
2	1		AGIRIEN AKREDITAZIOA				
2	1	1	Ez da egiaztatu BI-aren 3./4. paragrafoan eskatzen diren ondorengo agiriok (zehaztu dokumentuak) aurkeztu direnik		x		
2	1	2	BI-aren 3./4. paragrafoko ondorengo puntuaren kariaz (zehaztu puntua) aurkeztutako agiriak ez dira nahikoa edo behar bezain osatuak akreditazio dokumentala ontzat emateko	x			
2	1	3	Ez du jarduera lizentziarik			x	
2	1	4	Jarduera lizentzian ez daude jasota enpresaren aktibitate guztiak		x		
2	1	5	Ez du irekitze lizentziarik		x		



2	1	6	Jarduera lizentziaren ondorengo baldintza hauek ez dira bete datan (zehaztu baldintzak)		x		
2	1	7	Jarduera lizentzian ezarritako neurri zuzentzaileen baldintza/k ez dira bete (zehaztu baldintzak)		x		
2	1	8	Ez du baimenik, eta ez du dagokion agiririk aurkeztu honako hauen inguruan (sektorekoak HEA-en kudeatzaile gisa, AKDJ-ak, URA, etab.)			x	
2	1	9	Ez du baimenik, nahiz eta aurkeztu dituen honako hauen inguruan dagozkion agiriak (sektorekoak HEA-en kudeatzaile gisa, AKDJ-ak, URA, etab.)	x			
2	1	10	Ez du BI-rik, eta ez du aurkeztu hari dagokion eskaerarik			x	
2	1	11	Ez du BI-rik, nahiz eta aurkeztu duen hari dagokion eskaera	x			
2	1	12	Ez da agiri bidez egiaztatu bete izana (..... datan eskatutakoa, BI-aren XXX baldintzan galdatutakoa)		x		
2	1	13	Ez du baimenik, eta ez du dagokion agiririk aurkeztu hondakin arriskutsuen inguruan				x
2	1	14	Ez du baimenik, nahiz eta aurkeztu dituen hondakin arriskutsuen inguruan dagozkion agiriak			X	
2	1	15	Ez du hondakin arriskutsuen kudeatzailearen jakinarazpenik			x	
2	1	16	Ez du hondakin arriskutsuen ekoizlearen jakinarazpenik		x		
